



ARGIA



Pobreziaren aurkako herritarren proposamena

EUSKO LEGEBILTZARRAK EZETZ ESANGO AL DIO?



"Prostituzioan ordaintzen dena bortxaketaren antzekoa da"

31 | KAJSA EKIS EKMAN



"Hoztasuna transmititzen dugu, baita etxearen berotasuna ere"

43 | BEÑAT GOITIA - MONTAUK



LARRUN | SEXU HEZIKETA
Naturala tabu bilakatzearen ondorioak

ARGIA



Indartu DEZAGUN,
INDARTZEN GAITUENA

ZUK ERABAKI
ZENBATEKO EKARPEN
EKONOMIKOA
EMAN NAHI DUZUN
ARGIA-REN ALDE

ZUK ERABAKI
ARGIA-REN
PRODUKTUEN
ARTEAN, ZER
JASO NAHI DUZUN
BUELTAN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

Iritziak

- 17 | MIKEL ZURBANO
- 18 | IRATI ELORRIETA
- 19 | IMANOL ALVAREZ
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | INMA ERREA

Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENeko EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGi-KONTRA: EMPAR MOLINER
- 54 | BERANDUEGI

AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA



EL SALTO ARTIBOIA

34 | DESALOJO IZUGARRIA:
Sevillako Casas Viejas zentro sozial okupatuaren desalojoan, erresistentzia izugarria egin zuten bi kidek 2007an. Poliziak, azkenean, tortuatu zituela salatu zuten. Estrasburgok arrazoia eman die.

Lukas Barandiaran

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Extinction Rebellion: itxaropenik ezean, matxinatu

Pello Zubiria Kamino

12 | PERTSONAIA | MARIA DOLORES LEONET

“Mundukoak gehiago kanbiatu dira, mundua bera baino”

Miel A. Elustondo

22 | POLITIKA

Pobrezia bukatzea Eusko Legebiltzarraren esku

Zigor Oleaga

28 | EUSKARA

Euskararen normalizazioa lan munduan: aitzindariak hasiberriak hausportzen

Ainhoa Bretos

30 | GORPUTZA | KAJSÁ EKIS EKMAN

“Ezin da sabel bat alokatu, emakumea da alokatzen dena eta hori esplotazioa da”

Maria Colera Intxausti

43 | KULTURA | MONTAUK

“Buruan genuena diskora eramatea lortu dugu”

Gorka Peñagarikano

46 | KULTURA | PLATERU

Durangoko zilarginen herri-antzezlarri izpiritua berpizten

Amaia Lekunberri Ansola

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Gorka Peñagarikano, Iñigo Igartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdí, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enprekin batera:
Antza inprimategia
Iametzta komunikazio zerbitzuak
Adur informatika zerbitzuak

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

VOLVEREM





PARTIDA EZ DA AMAITU

ARGAZKIA | **IBAI ARRIETA**

TESTUA | **AXIER LOPEZ**

Euskal Herri osoko milaka lagunak babesa jaso dute larunbatean Iruñeko Maravillas gaztetxeko lagunek. Eta haien bultzadaz eta rotaflex-aren laguntzaz, Nafarrako Gobernuak herritarrei itxiazitako atea zabaltu zuten. Hurrengo egunean, ordea, auzoa berriz poliziaz josi eta atzera ere hormatu zuten eraikina. Autogestiotik gaztetxe batek izaera eta mezu politiko propioa garatzea botereak onartu ezin zuen hautua da, antza. Eta horretan, abizena ezberdina izanik ere –Barcina edo Barkos–, gatazkak bideratzeko karta ez dute aldatu: indarkeria.



SAN SEBASTIAN EGUNEAN, HELDUEN 147 DANBORRADA IBILIKO DIRA HIRIKO KALEETAN. HORIETATIK BEDERATZI GIZONEK SOILIK OSATUKO DITUZTE: OLLAGORRA, ZUBI GAIN, GIZARTEA, ONDAR GAIN, AIZEPE, AMIGOS DEL EUROPA, CLUB CANTÁBRICO, CATEDRAL CENTENARIO, ANTONIO BAR

@EstiZabala



EZ DAKIT ZER DUZUEN ABANDERADA ETA KANTINEREN AURKA, IZAN ERE DANBORRADA KO FUNTZIONAMENDUAREN PARTE GARRANTZITSUENA KUDEATZEN DUTE GASTADOREKIN BATERA. BAINA GASTADOREAK EZ DITU INORK GUTXIESTEN. OSO PENAGARRIA ETA IRAINGARRIA IRUDITZEN ZAIT ZUEN JARRERA

@alexalbavalde



[@ALEXALBAVALDES-EN TXIOARI ERANTZUNEZ] GALDERA DA ZERGATIK EZIN DUTEN EMAKUMEEK DANBORRA JO, ETA ZERGATIK BATZUEI ONDO IRUDITZEN ZAIEN HALA IZATEA

@bsarasola



DANBORRDA "MISTO" ASKOTAN NESKEK BAKARRIK KUPELA JO AHAL IZANGO DUTE, DANBORRIK EZ. ADIBIDEZ GAZTELUBIDE ETA UNION ARTESANAN, BAITA BESTE ASKOTXOTAN ERE. EZ AHAZTU! ORAINDIK BIDE LUZEA DUGU AURRETIK

@Urrez



EUROFIGHTER HEGAZKINETARAKO PIEZAK EUSKAL HERRIAN EKOIZTEN DIRA.

Etxean ekoizten diren armak

HALA BEDI @halabedi

Euskal Herrian ez dira soilik piperrak, babarrunak edo patatak ekoizten. Armak ere ekoizten dira, eta nola gainera: euskal industria militarrek 500 milioi euro-tik gorako irabaziak ditu urtero, besteak beste, AERNNOVA edo ITP enpresei eta erakunde publiko eta pribatuaren konplizitateari esker. Etxe ondoko enpresetatik Turkiara, Israelera edo Saudi Arabiara esportatzen diren 'Eusko Label' armak dira.

Gaur egun, 100 euskal enpresa baino gehiagok haien produkzio osoa edo zati bat armen ekoizpena bideratzen dute, haietako batzuk Espainiako sektore militarrean garrantzitsuenen artean daudenak. Besteak beste, adierazgarrienak hurrengoak dira: Araban, arlo aeroespazialean aritzen den AERNNOVA; Bizkaian, misil eta elektronika militarra jorratzen duen SENER eta arlo aeroespazialean aritzen den ITP; Gipuzkoan, gerra-tanke eta ibilgailu militarrek ekoizten dituen SAPA; Iparraldean, arlo aeroespazialean jarduten diren DASSAULT eta TURBOMECA.

Produkzioaren %80 baino gehiago esportatu egiten da. Gehiengoa, Europako herrialdeetara, NATO, MEB eta beste gerra operazio batzuetan erabiltzeko. Beste zati bat gatazka eta zapalkuntza herrialdeetara bidaltzen da, hala nola, Saudi Arabia, Turkia, Israel edo Egiptora.

Datuak mahaiaren gainean jarrita, zenbait elkarte eta kolektibok euskal instituzio publiko eta pribatuaren "inplikazioa eta hipokresia" salatu dute Gasteiz Zapateneo gunean egindako agerraldi batean. Unibertsitateek, Lanbide Heziketako zentroek eta ikerkuntza zentroek, adibidez, produkzio militarra areagotzeko ikerkuntza lanak egiten dituztela salatu dute. Eusko Jaurlaritzak, berriz, babesa eta diru publikoa eskaintzen dio euskal industria militarri: "Gastu militarrean etengabeko gorakada duten aurrekontu ofizialak babestu, onartu eta finantzatzen ditu, baita industria militarrentzako dirulaguntzak bideratu ere". ●

GAIZKI ERRANKA

Hautapen naturala



SANTI LEONÉ
@ororostorm

Filmak *Bird Box* du izena, eta Netflixen dago ikusgai. Han-he-men irakurri dudanaren arabera, istorioa etorkizun postapokaliptikoan gertatzen da; protagonistak, Sandra Bullockek antzeztuak, begiak estalita dituela egin behar ditu egin beharreko gauza guziak, bere biktimak ikusmenaren bidez harrapatzen dituen munstro batek ez harrapatzekotan bederen. Nik ez dut oraindik ikusi, baina litekeena da *toki lasai batean* gel-ditzea –a *quiet place*, hobeki ulertzen baduzue– ikusi gabe.

Kontua da jendea hasi dela Sandra Bullocken pertsonaia imitatzen; jendea hasi da, alegia, begiak estalita dituela etxean barna ibiltzen –edo lasterka egiten–, gidatzen, karrikan paseatzen edo errepidea zeharkatzen. Netflixek ohar bat atera behar izan du gogorazteko gauza horiek guziak horrela egitea arriskutsua izan litekeela.

Bird Box erronkaren ondorioz, YouTubek erabaki du egilearen bizia arriskuan jar lezaketen ekintzak erakusten dituzten bideoak debekatzea. Haurrak dira erabaki hori hartzeko emandako aitzakia, baina nik ikusi ditudan bideo guziak helduak –maiz ez preseski gazteak– dira nagusi.

Ingalaterran eman nuen bolada batean, gogoan dut supermerkatu bateko karteak bezeroei oroitarazten zietela frutak eta barazkiak garbitu egin behar zirela jan baino lehen. *Gizarteak du errua, kontu estrukturala da, hezkuntzaren ardura da, hizkuntzaren erabilera da aferra...* Erantzukizun pertsonalak ez du balio, jakina, den-dena azaltzeko, baina YouTuberi gure buruarengandik babesteko eskatu behar badiogu, Netflixek argitu behar badigu benda bat begietan flanbeatu bat prestatzea ez dela nahitaez munduko ideiarik onena, akaso gure gizartean infantilizazioa ez ote den urrunegi ailegatzen ari galdegin behar genioke gure bu-ruari. Eta hautapen naturalari utzi bere lana egiten. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

BITARTEAN, ALTSASUTIK
EZ OSO URRUN...



ADUR

“EÜSKARA IKASTEA AISA DA, ZONBAITENTAKO PHÜRÜ!”

DYLAN DENNY-STEARN INGLIS, EUSKARA IKASI DUEN INGELESA

Ingalaterrako Dylan elkarrizketatu dute Xiberoko Botzak irrati-katean, eta asko zabaldu da bere mezua. Zuberoan da Dylan, zuberotarren egoera linguistikoa ikertzen. Urte eta erdiz euskara ikasi du, lehenik batua eta ondotik euskalki ugari, horien artean zuberotarra. Elkarrizketan kontatu du euskara ikasten “kuriositatez” hasi zela, eta gustukoa izanik, jarraitu egin zuela. Barnetegian, eta interneten laguntzaz, azkar ikasi daitekeela azaldu du. “Eüskara zinez berezia da enetako”. **XIBEROKO BOTZA (2019/01/15)**



Jaka horidunak eta pentsionistak



JUAN MARI ARREGI

Manifestazioek, grebek eta langile mobilizazioek ez dutela ezertarako balio pentsatzen dute ezko-rrenek, eta horregatik ez dira kalera ateratzen. Baina beste behin, errealtateak kontraesanean jarri ditu eta ez lukete besoak gurutzatuta geratu behar, besteak protestan ari diren bitartean.

Jaka horidunen mobilizazioek Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan Emmanuel Macron Frantziako presidentea mugiarazi dute. "Eztabaida nazionala" deitu du joan den astean. Zergatik eztabaida? Gobernuak ez duelako jaka horidunen eskaerei erantzuteko soluzio eta gaitasunik.

Ez da nahikoa izan hidrokarburoei jarritako tasa bertan behera uztea, ezta herritarrek eros ahalmena berreskuratzeko neurriak hartu izana ere, hasierako mobilizazioak horri lotuta egon ziren arren. Haserrealdi sozialak aurrera egin du eta joan den astean 100.000 jaka horidun atera dira kalera beste behin. Macronek dio haserre hori "irtenbide" bihurtu nahi duela, eta horretarako zabaldu omen du eztabaida: fiskalitatea eta gastu publikoa, zerbitzu publikoak, trantsizio ekologikoa, demokrazia eta herritartasuna... Mugimendu horrekin erantzun "komestikoa" eman dezake protestak desaktibatzeke, baina oker dabil horrela. Jaka horidunen antolaketa anitza da eta haserretuta egoten jarraitzen dute, besteak beste, ez delako berrezarri fortunei gainera zerga.

Euskal pentsiodunak, Huerta de Peraltako grebalariak, eskola kontzertatuetako irakasleak, La Navaleko langileak, eta kalera irten diren sektore guztiak: jaka horidunak erresistentzia eta eraginkortasun eredu dituzue. Bat eginez eta mobilizatuta, helburuak lortzen dira. ●



ECUADOR ETXEA

Kale borrokaren garaia da

AXIER LOPEZ @axierL

Nola da posible? Bolo-bolo dabil galdera, Andaluziako parlamentura VOX sartu zenetik 400.000 lagunengana babesarekin. Arrazoiengana dantza askotarikoa izaten ari da. Baina, Andaluziaz ari garela, ezin egoera zehatza alboratu. Frankismotik hona, Andaluziak ez du ezagutu PSOEren ez den beste aginterik. Espainiako Estatuko lurrik emankorrengana langabezia, prekarietatea, kazikismoa eta 'entxufismoa' Andaluziaren sinonimo bilakatu dira urte hauetan. "Ezkerraren" agindupean. Eta, azken urteotan, inoiz baino agerian haizatu dizkiote lotsak erregimenari: 89 kargu zigortu dituzte 692 milioi euro publiko desbideratzeagatik, bi presidente ohi akusatuen eserlekuan daude, ustelkeriarekin lotutako 13 makro-epaiketa daude zain. "Ezkerraren" ekarpena hori izanik, nola kezkatu orain eskuinaren etorreragatik?

Baina hau ez da Andaluziako kontua bakarrik. Kapitalismoa garatuen dagoen "lehen munduko" herrialde guztietako joera da. 1980ko hamarkadatik hona, ezberdintasunak eta arrakala soziala handitu besterik ez dira egin. Are abaila handiagorekin, krisi ekonomikoaz jantzitako kapital-metaketaoren ostean. Merkatuaren menpeko sistema, bertsio liberal ala neoliberealean, ziklo berri batean sartzen ari da. Eta epe honen ezaugarri nagusia autoritarismoa da. Berregituratze horretan, alderdi politiko berriak sortu eta berpizten ari dira helburu argi batekin: sektorerik prekarioenak, kapitalismoak gehien kaltetutako horiek motzean lotzea, ezkerreko indarrentzat abagune interesgarria izan litekeen krisi giro ezegonkor honetan.

Eta hala, autoritarismoaren aro honetan ezinbesteko bilakatu dira Abascal eta Casado, Macron eta Le Pen, Bolsonaro eta Bannon; beharrezkoak European Salvini, Duda, Orban, Batten, Akesson, Strache, Gauland, Halla-aho, Heinz-Christian eta enparauak.

Arriskutsuena, ordea, ez da pentsaera edo antolakunde hauen existentzia. Ideia xenofoboak, arrazistak, matxistak, supremazistak edo frankistak arrazoiaren indarrez garaitu daitezkeela ez badugu sinesten, gureak egin baitu. Arazoa da ideia horien normalizazio prozesua, espazio publikoan gatazkaren bitartez, konfrontatu beharrean, instituzioen barruko "joko arau demokratikoaren" afera gisa tratatzea.

VOXeko Andaluziako eledunari kasu egin eta mugimendu feminista "kale borroka" egitera atera zen, faxismoarenak eta ultra-eskuinarenak bakarrik izandako proposamenak gizaratean normaltasun osoz barneratu aurretik. Baita gure "euskal oasian" ere. ●



BANGLADESHKO EHUNGINTZA GREBAN

DHAKA. Bangladeshko esku-lan merkean oinarritzen den ehungintza industria ere duaren jasagarritasun eza bistaratu dute emakumeek Bangladeshen: soldata altuagoak exijitzeko, milioika langilek Dhaka hiriko kaleak hartu dituzte. Grebari bide eman dioten istiluetan poliziak gas negar-eragilea eta gomazko pilotak erabili ditu, hildako bat eraginez. Txinaren atzetik, ehungintza fabrikatzaile handiena da Bangladesh: 3,5 milioi langilek –gehienbat emakumeak– egiten dute lan, arropa multinazionalen pean.



EUSKALTZAINDIA

466

hitz berri ditu Euskaltzaindiaren Hiztegiak. 392 azpisarrera ere arautu ditu. Hitzetako asko, maiz erabiltzen direnak dira. Adibidez, bokata –ogitartekoaren sinonimo gisa–, txikiteo, jonki, ninja, piercing, paparazzi, spa, transexual, trekking, zeliako, txosnagune, wifi...

Martxoaren 8rako prest

M8ko Greba Feministaren nondik norakoak aurkeztu ditu Mugimendu Feministak.

BOST ARDATZ

Bost ardatzetan antolatuta dute greba: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo Greba Feminista izango da. Bizitza sostengatzeko ardurak kolektiboa eskatzen dute. Horretarako, zaintzaren “berrantolaketa soziala” aldarrikatzen dute, alegia, pertsonen zaintza ez dadila zapalduen bizkarrean geratu. Finean, paktu sozial berri bat aldarrikatzen dute.

NOR DA GREBAREN SUBJEKTUA?

Emakumeak, bollerak eta transak, hau da “heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektuak. Greba Feministaren subjektu guztiak ez gara emakume bezala izendatzen. Are gehiago, iruditzen zaigu emakume eta gizon kategoria patriarkalekin amaitu beharra dagoela”

GREBA NOLA EGIN?

Aurreko urtean bezala, greba egiteko eta grebaren parte izateko hainbat modu egongo dira emakumeentzat*: lantoki eta ikasgeletan greba egitea, herri eta hirietako mobilizazioetara joatea, zaintzeari uztea, eskualde edo arlo jakin batean greba antolatzea eta zabaltzea, eta besoko morea eta txapa ipintzea. Egun horretan ez kontsumitzera ere deitu dute.



EGUNKARI BERRIA. Iazko urtarrilean sortu zen *Sermos O Diario Galego* egunkari digitala. Harpidetzak lortuz gero, hasierako xedea gauzatu-ko litzateke 2019an: galiziarrei galego hutsean aritzen den paperezko egunkari bakarra eskaintzea. Ekonomikoki sostengatu ahal izateko, 3.000 harpidedunen beharra dute.



PETRONOR. Fiskaltzak Petronor ikertuko du lehen aldiz isuriengatik. Azaroaren 9 eta 16 bitartean, Muzkizko findegiko kabinetako batean “ohikoak baino bentzeno balore altuagoko” isuriak izan zirela aitortu du Petronor enpresak. Egun gehiagotan ere gainditu dute baimendutako isuriaren maila.



EUSKARA TUTERAN. Tuteran udaltzain lanposturako oposizioetan, alemana, frantsesa eta ingelesa jakitea baloratu zuten, baina euskara ez. Arartekoak salatu ostean, alkateak hasierako jarrerari eutsi zion. Orain, diskurtsoa aldatu eta ziurtatu du “gubxienez” gaztelera ez beste hizkuntzei adinako balioa emango zaiola.

Extinction Rebellion: itxaropenik ezean, matxinatu

2018ko urriaren 17an Extinction Rebellion mugimendu berriak bere burua aurkeztu zuen publikoki Londresen, Greenpeace elkarte ekologistaren egoitza nagusian sartuta eserialdia eginez: “Greenpeaceko kideak animatu nahi ditugu desobedientzia zibil masiboetan parte har dezaten, munduari datorkion katastrofea saihesteko geratzen zaigun alternatiba bakarra hau delako”. Eta hilabete beranduagorako deitu zuten *matxinada eguna*.

PELLO ZUBIRIA KAMINO @pellozubiria

Euskaldunontzako ere balio luke Corinne Morel Darleux Parti de Gauche frantseseko hautetsiak idatzi berri duenak: “Sarriagotan erreparatu behar-ko genioke beste lekuetan gertatzen denari. Frantzian klimaren alde *Oraindik garaiz gaude* lelopean manifestatzen ginen bitartean, Ingalaterran blokeoak antolatzen ari ziren *Ez daukagu denbora gehiago* oihukatuz. Egin litezke hor alderaketa interesgarriak Alemaniako ikatz meategiari egindako blokeoarekin, Pauen petrolio ekoizleen gailurrean antolatutakoarekin edo baita ere Alternatibak Frantzian aldarrikatzen duen borroka ez-bortitzarekin ere. Baina oraingoz Frantzian gutxi aipatu da internazionalizatze asmoz Ingalaterran sortutako mugimendu horretaz”.

XR sinadura dagoeneko zabaldu da Britainia Handiko gatazka askotako ekintzetan: *X* desagerpenarena (*extinction*), *R* matxinadarena (*rebellion*). Logoa Xrekin jokatzu erraz marrazten den hondar-erloju bat, hondamendia saihestekotan erreakzionatzeko denbora agortzen ari dela iradokitzen duena.

Mugimenduaren webgunean sortzaileetakoa den Gail Bradbrookek aurkeztu ditu klimaren berotzearen azken ebidentzia zientifikoak eta azaltzen nola ari diren gertatzen izotz poloen urtea, albedoaren galera, faxismoa berriz itzultzeko arriskua eta oligarkiak darabiltzan mekanismoak hondamendiak kolpatuko gaituen gainerako mundutarrongandik urruntzeko. Horregatik, dio, premiazkoa

da norabidea aldatzea, teknikoki eta ekonomikoki posible da, politikariek ez dute ezer egiten eta, ondorioz, indar harreman berri bat antolatu eta gauzak geure esku hartu behar ditugu.

Baina indar harreman politiko batez ari da XR, klimaren aldeko kanpaina sentimentalak alde batera utzita, Greta Thunbergekin dioen moduan: “Ezinez dugu Lurra salbatu haien arauekin jokatzu, arauak aldatu beharra dago. Gaur egun ez dago klimaren hondamendia saihesteko beharrezko politikarik. Sistema aldatu beharra daukagu, krisian gaude eta. Eta berehala hasi behar dugu. Gerra baletorkigu bezala gainera”.

Urriaren 31n eserialdia egin zuten Erresuma Batuko legebiltzarraren atarian, aldarrikatzeko Londresko gobernuaren kontrako matxinada (*Declaration of Rebellion*). Ekitaldian mintzatu zen Greta Thunberg 15 urteko neska suediarra, bere gobernuak klimaren arazoan ezer egiten ez duelako eskola-greban dagoena. «Badirudi gertatzen denaren datuek ez dutela inporta gaur egun, politikariek ez diete zientzialariei entzuten. Hori horrela bada, zergatik ikasi behar dut? Jende helduari bost axola bazaio gure etorkizuna, orduan niri ere bai”.

Ekitaldian poliziak 15 protestalari atxilotu zituen autoen zirkulazioa oztopatzeagatik. Ondorengo bi asteetan 60 gehiago arrestatu zituzten, XRk antolatutako desobedientziazko ekintzetan parte hartzeagatik: kale mozketak, Ingurumen Ministerioarena eta beste zenbait egoitza ofizialen hormetan pin-

taketak egiteagatik, lehen ministroa bizi den Downing Streeteko sarreran beren buruak kateatzeagatik...

Azaroaren 17an milaka lagunek hartu zuten parte *Rebellion Day* borroka egunean. Londresko bost zubi nagusiak blokatu zituzten ordu luzez, trafiko butxaketa handia eraginez. *The Guardianek* biharamunean esan zuen hura izan zela “Erresuma Batuan azken hamarkadetan izandako desobedientzia zibil baketsuzko ekintza handienetakoa”. Egun batzuk geroago hainbat kale gurutze blokatu zituzten Londresen eta Oxford, Cambridge eta beste zenbait hiritan antzeko protestak zabaldu ziren.

Extinction Rebellionek hiru eskakizun egiten ditu. Bat, gobernuak konta diezaietela herritarrei krisi ekologikoaren egia. Bi, mundu mailako mobilizazio bat antolatzea, II. Mundu Gerrakoa adinakoa, karbono isuri netoak 2025erako 0-raino murrizteko, erabaki politiko lotesleak hartuz eta gaurko kontsumo mailak murriztuz. Hiru, aldaketak gainbegiratu dituzten Herritarren Batzarrek antolatzea.

Horiek lortzeko bidean, XRk bere misiotzat hartu du populazioaren %3,5 mobilizatzea, borroka tresna baketsuen bidez eta modu deszentralizatuan funtzionatuz. Nola? Daniel Macmillen Voskoboynikek *Red Pepper*-en azaldu duenez “XRek lortu nahi du mugimenduaren eskalada izugarri bat, masa mobilizazioa, desobedientzia zibilak eta atxilotetak kateatuz. XRn parte hartzen duen Rupert Read filosofoak dioen moduan, ‘epe luze-

EKINTZA ZUZENA
XR-KO EKINTZAILEA LONDRESKO
INGURUMEN MINISTERIOAREN EGOITZAN
PINTAKETAKETAGATIK ATXILOTUTA.



@EXTINCTIONR

rako gure helburua da sortzea egoera bat non Gobernuak ezingo dion ezikusia egin klimaren hondamendia saihestu nahi duen jendetza gero eta handiagoari. (...) Teoria honen oinarrian dago mugimendu historikoetan 'masa atxilotetek' jokatu duten papera eta Erica Chenoweth politologoak '%3,5aren Legea' deitzen duena: historian zehar mugimenduek populazioaren portzentaje horren parte-hartze aktibo eta jarraia behar izan dutela diktadurak eraisteko".

Ehuneko zehatzak gora behera, Corinne Morelek uste du XRk mezu berria dakarrela honetan, militante ezkertiar eta ekologistek masen bila behin eta berriro aritzean jasaten duten akiduraren sendagarri: "Ez dagoela zertan milioika jende bildu beharrik. Eskarietan, manifestazioetan eta beste lehenetsi den kopuruen kulturaren ordeztu, XRk erabili nahi ditu ekintza ez derrigorrez masi-

boak baina bai 'disruptiboak', hau da, aztoratzaileak eta subertsiboak, bortizkeria kaltegarriak gabekoak. Haien zatigose greba bat hasteak edo espetxera joateko prest egoteak erakusten dute zenbateraino den serioa gai bat eta bere burua arriskuan jartze horrek begirunea eragiten du, jendea iratzartzea. Azken finean, ideia da 'zenbat eta larriagoa izan gaia, orduan eta gutxiago behar dela ekintzaileak ugariak izatea".

Antza denez, XRk aurreratu du dagoeneko 500 pertsona badaudela espetxera joateko prest estrategia honetan. Kanpotik mugimenduari begiratzen dionari galderak sortarazten dizkio: ez al da esajeratzen sakrifikatzearen ideia, erromantizismo iraultzaile kutsu handiegikoa, edo are jende pribilegiadunak baizik egin ezin dutena? Bikotekide gabeko amak, errefuxiatuak, langileetan prekarioenak... ezingo dira sartu ho-

rrelakoetan. "Hain zuzen horrexegatik -erantzuten du- Morelek: aukera hori daukateneke egon behar dute lehen leerroan. Baina ez pentsa horientzako ere erraza denik. Horregatik ari dira pres-taketa lanetan, bai bilkura fisikoetan, web bidezko eztabaidetan, bideoak jarri dituzte Youtuben..."

Extinction Rebellionekin bat egin duen Kate Marvel klimatologoak esan du: "Sarritan eskatzen didate eman ditzadala itxaropenerako arrazoia. Jendeak entzun nahi du azkenean dena ondo amaituko dela. Baina nik ezin dut horrelakorik esan. Itxaropenaren kontrakoa ez da etsipena, pena da. Guk adorea behar dugu, ez itxaropena. Adorea da ondo egitea erabakitzea, seguru eduki gabe dena ondo bukatuko dela". Agian horrexegatik ipini du XRk honakoa bere esloganen artean: "*Hope dies, action begins*". Itxaropena hil, ekintza hasi. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t



Maria Dolores Leonet

EUSKARA AHOAN ETA IBILI MENDIKO MUNDUAN



MUNDUKOAK GEHIAGO KANBIATU DIRA MUNDUA BERA BAINO



Argiak mendeurrena, 89 urte Leonetek, Erreenteriako Epixkar eta Oartzungo Barin baserrietan inoren mendean ez eta mendian gora igaro dituenak, euskara beste hizkuntzarik gabe. Azken mohikarretakoa, gure hizkuntzaren zainetako izerdiaren zaindari harrigarria.

TESTUA | MIEL A. ELUSTONDO
ARGAZKIAK | ZALDI ERO

Barre egiten duzu! [Grabagailuari begira ari da]

Horrelako gauza polita ez dugu behin ere ikusi eta! Poza ematen du, poza, polita baita!

Ez zara Barin baserri honetan jaioa.

Ez, Epixkarren jaioa naiz, hemendik goiti. Orain etxe berria egina da han.

Zenbat zineten Erreenteriako Epixkarren?

Erruz! Hamasei senide baginen, baina orain hiru bakarrik bizi gara. Hantxe ibiltzen ginen denak. Arto puska bat egiten genuen, eta taloa jan. Potajea eta taloa, gure janaria izaten zen. Eta nahikoa azkenean. Besterik ez zen, eta taloa jan behar. Ni 30ean jaioa naiz, eta 50ean, eta gehiago ere bai, taloa jaten genuen. Eta, hala ere, taloa jaten genuenean kontentu ginen.

Eskolarik ba al zen?

Bai, karrera hala atera genuen, eskolara joanda. [Barrez] Baina ikasi genuen. Doktrina, hasi punta batetik eta besteraino.

Amona xahar bat zen, eta hark erakutsi zigun. Eta ikasi nituen *sumar*, *restar* eta *dividir*. Erdaraz, hitzik ere ez. Ez genuen ikasi. Bederatzi urte arte-edo ibili ginen gu eskolan. Gutxi. Sardea eta idiak hartu eta sorora. Baserrian dena zen lana. Sortzen zen, bai, lana, besterik ez balego bezala.

Gerraren hotsa ailegatu al zen Epixkarrera?

Ez, zera! Burla ederrak egiten genizkien soldaduei. Ez ginen, hala ere, etxean egon. Beste baserri bat baikenuen Alduran, eta hara. Gure etxean soldaduak egon ziren. Nik ez dakit erreke-teak ziren edo zer klase ziren, baina haiek Epixkarren, eta gu Alduran, ez dakit zenbat familia egon ginen han bizitzen. Mor-doxka ginen, lau edo bost familia. Baina han tolarea zen, eta tolarearen gainean egiten genuen lo. Tiroak ere baziren. Gure gainetik pasatzen ziren. Fiiiii! Hildakorik ez zen izan gurean, baina kartzela bai. Gure aita kartzelara eraman zuten. Behien azpiak kentzen ari zela, hartu eta kartzelara sartu zuten. Akor-datzen naiz, ni atarian, beste haiek etorri eta eman zioten es-tualdi ederra. Izan ziren erituak eta. Izan zen gauza franko, bai.

Maria Dolores Leonet Zabala

OIARTZUN, 1930



Epixkar baserrian jaio eta hazia, Barinera ezkondu eta bertan egin du ondoko bizia. Baserria izan du etxe eta mundu, erakutsiz emakumearen lan bukaerarik gabekoak eutsi diola baserriari, bere buruari begiratzen ibiltzeko tarterik gabe. Eus-kara beste hizkuntzarik ez zen mendian gora sortua, kantu bihurtua du Leonetek gure hizkuntza, margolariaren kolore-paletaren jabe eгина.

Zeinekin duzue harremana gainalde honetan?

Inorekin ez. Hau mendia da. Izatekotan, Oiartzunekin. Hau Erreterria da, baina non dago Erreterria hemendik joanda? Urruti.

Kontrabandorik bazen gain hauetan?

Bai, bai... Alduran belarra edukitzen genuen, eta beldur ederra ere bai, belarraren bila joan eta karga harrapatzeko han. Edozein egoten baitzen han. Eta idiak ere ibiltzen zituzten kontrabandoan. Ezagutu nituen kontrabandoan ibilitakoak: Txanberlain bat-eta, mutil bapoa zen. Patxi bat-eta, errubioa, izugarri gogorra zen. Uste dut tiroz hil zutela, ez nuke seguru esango, baina hala uste dut. Ez dakit zer ibiltzen zuten, kafea edo auskalo. Ibiltzen zirela, bai. Susperregiko izebak, jaten, sotoan ematen zien haiei, aziendaren ondoan. Benta zuen izebak. Hara sartzen zen goiti, eta sumatuz gero zerbait ere, sotokoek egiten zuten leihotik salto eta martxa.

Epixkarren jaioa, Barin baserri honetara ezkondu zinen.

27 urterekin. Baserri honetantxe ezagutu nuen gizona. Iratzea ebakitzera etorri nintzen, laguntzera. Gero, berriz, bera joan zen hara, nirekin egon nahi zuela esan zidan, nirekin bukatu nahi zuela. "Ikusiko diagu gero!" esan nion. Eta bildu ginen, eta oso ongi eraman genuen bata bestea. Batzuetan haserretzen ginen, ez zen ederra, baina batzuetan haserretu behar da. Orain dela 26 urte alargundu nintzen eta orain hemen nabil.

Libre zabilzala esan didate.

Hankak ezin karriatuta, libre? Diferentzia ederra dago! Hala ere, ibili egiten naiz ni oraindik, baratzerria joan eta etorri. Ibili, behintzat.

Baratzerria joan eta etorrian, baina ez paseoan, lanean baizik.

Lanean? Letxua hor dago sukaldean, baratzean nik eгина. Eta oiloak. Zortzi oilo, nik gobernatzen ditudanak, zirriki-zarraka, arrunt gustura gainera. Gustu-gustuena arrautzak biltzen ibiltzen naiz, baina alu horiek gutxi egiten. Kar, kar...

Epixkarren lan, Barinen lan...

Baina hemen baino gehiago zen lana Epixkarren. Zikilisaltsan gehiago ibili behar izaten zen han. Baina hemen ere lana bazen. Niretzat, behintzat, nahikoa. Arropa garbitzen sumatu nuen nik handik hona etorri eta egundoko diferentzia. Han arropak garbitzen ibiltzen ginen beheko erredera joanda. Mando bat bagenuen, mando gainean jarri arropa eta erredera. Sartu han arropa eta jelatu egiten zen. Eginahala ibiltzen ginen. Hona etorri nintzenean, iturri ederra, urak kea botatzen zuena zen, epel-epela. Aska ere ederra zen, eta hantxe. Lan gogorra zen. Gizona hondatu zen franko, baina hala ere kontentu ibiltzen nintzen. 9 urterekin hasi ginen otetara joaten Epixkarren. Handik Barinera etorri eta otetan segitu genuen, baina hala ere, han baino bigunago izan zen lana hemen.

Zertan izan ziren zure senideak?

Gure amak egiten zuena zen, ahal zuen guztia moja bidali. Niri ere esaten zidan amak, baina ez. Nik ez nuen gogorik. Eta gogorik ez eta zer egin behar nuen joanda? Asko esaten zuen amak, baina ez dakit nola ez zegoen bera moja. Hiru ahizpa moja joan ziren. Bi amarenak ginen. Bi ahizpa, ama batenak; hiru, bestearenak. Ahizpetako batek Erromara joan behar zuela esaten zuen, moja sartu nahi zuen, baina inon ez zuten hartzen. Azkenean, Donostian hartu zuten, eta hantxe eman zuen bizitza. Gainera, ongi estimatu zuten. Kozinan aritzen zen.

Beste biak, berriz, Cañasen, Logroñon egon ziren. [XI. mendeko zistertar monasterioa]. Biak, gainera, abadesa egin zituzten. Lehenengo hiltzean, bestea egin zuten abadesa. Bata 16 urterekin joan zen moja; bestea, 18rekin-edo. Lan izugarria egin zuten komentuan. Behiekin, txerrieekin egin zuten lan. Gero, zeramikan. Arrunt fuer-teak ziren, eta asko ikasi zuten. Bi anaia ere fraide joan ziren Arantzazura. Eskean etortzen ziren fraideak, eta haiei laguntzeko ere baten bat behar zuten, eta gure anaia bat joan zen haiekin. Joan zen, baina hark Arantzazun ezin... ama eta aita falta zituela, eta etxera berriz ere. Beste anaia ez, beste anaia Calahorran-edo egon zen fraide.

Bularra tiratzera etortzen zen emakumearena ere ezagutu genuen, Portugal baserriko Erramuna

Asko agindu du Elizak.

Amak elizara joateko esaten zidan, besterik ez. Lehenago joaten nintzen, Epixkartik. Orain ez. Ordubete, ordubete eta laurdenean sartzen ginen Epixkartik Oiarzungo kalera, agudo joanda. Bueltan, bi behar izaten genituen. Dantzara ere joaten ginen, Txikierridira, baina atzera berriz etxera etorri behar izaten genuen, eta besteak dantzara eta gu etxera, batere soinua aditu gabe. Erromeriak ere egiten genituen. Epixkarko kaskora etortzen zen mutil bat, soinuarekin. Soinua jotzen zuen prim-prum, prim-prum, eta guk dantzan!

Ondoko baserrietara joaten zineten lanean laguntzera.

Bai, artajorran-eta laguntzen genuen. Merienda ere ematen ziguten, eta gu kontentu. Eta bi sos ere ematen zizkiguten, igual. Trabaleku eta inguruko baserrietara joaten ginen. Artajorrara, edo sagarra biltzera ere bai... Eta guk hazia patrikan sartzen, eta amona atzetik errietan.

Bi sos ematen zizkizuetela esan duzu.

Dirua ez zen baserrian askorik ageri...

Dirua ageri? Ez dakit noiz ikusi nituen lehen sosak gure baserrian. Lan zaila da hori esaten. Artajorrara joan eta ematen zizkiguten diruak, baina etxera ekarri behar izaten genituen, gurasoei eman. Bestela... Baserrian ez da dirurik. Kalera joan eta oilaskoa saldu eta sardina zaharra ekartzen zuten.

Atsolorra bizian ezagutu zenuen.

Bai. Ama batek familia izan, eta haurrak hamabost egun-edo zituela, egiten zen atso guztiak bildu. Eta jaten zen zerbait ere, eta *biba la juerga!* Oso polita izaten zen. Tertulian egoten ginen. Beste bat, pregoiarena izaten zen. Ezkondu aurretik, merienda ematen zuten batzuek. Hura oraindik alaiagoa izaten zen. Pregoiarena. Kontu zaharrak dira. Eta bularra tiratzera etortzen zen emakumearena ere ezagutu genuen, Portugal baserriko Erramuna. Hantxe etortzen zen, guri bularretik tiratzera. Gure amari, berriz, aita berak tiratu zion bularretik. Niri, berriz, andre hura etortzen zitzaidan... Hil zen Portugalgo Erramuna, emakume ederra, oso zerbitzala zen, eta bromosoa. Soinua jotzen zuen hark. Eta soinua jo eta bera hasten zen dantzan. Pieza bakarra zekien: fun-da-ta, fun-da-ta, furrurrui... fun-da-ta, fun-da-ta, furrurrui... Baina guk ezin genuen dantza egin mutilekin, bekatu zen eta. Batak bestea ukitu gabe beti. Eta elizan ere, aparte. Apaizak apartatu izan zituen senar-emateak elizan elkarren ondoan jarrita zeudenak.

Ezkonduak egonagatik ere?

Bai! Nire anaia zen, bere andrearekin, ezkon bidaian Logroñora joanak. Cañaseko komentu horretan zirela, elizan apaizak apartatu egin zituen. Horrelaxe izan da gure bizimodua. Eta orain ere, horixe. Oraindik ere egiten dut baratzean pixka-pixka bat, ilunabarrean paseatu hor barna, arrosarioa esan... Lehen, etxekoe-kin, eskaileran jarri eta arrosarioa esaten genuen. Orain, bakarrik esan behar izaten dut, inork ez bainu laguntzen.

GOBADA

“Lehenbizi, errekarera eraman behar izaten genuen arropa. Han busti eta xaboitu. Etxera etorri, kuela [lixiba-ontzia] jarri eta arropa kuelan sartu. Ura irakin, eta denbora batean lixiba hautsa izaten zen hemen, hauts hura bota goiti eta beheiti. Zuloa izaten zuen azpian kuelak, eta zer egiten genuen? Azpian bazina jarri. Hura ateratzen zenean, berriz ere irakin eta ura bota. Oso usain ederra izaten zuen. Gero, berriz ere errekarera eraman, berriz garbitu, eta arropa zabaldu. Hilean behin egiten genuen gobara, ez astero”.

OTEA, OTATXA, OTE TXIKIA, OTAXKA

“Zaldiarekin eta idiarekin joaten ginen, otea ebaki, zama egin, zama hartu bizkarrean, eta etxera zazpi itxaronalditan Iruritatik [Nafarroa]. Zazpi itxaronalditan. Gosea. Eta sardina errea sartu talo erdian, eta etxetik atera eta segituan jaten genuen hura. Guk ekartzen genuen gosea! Otaxka makinan jotzen genuen, traza jartzen genuen gainetik, eta tikiti-taka, tikiti-taka, aletzen genuen otea. Bi edo hiru ari-zen ginen hartan”.



BI AULKI

“Paseoa egiten dut egunero. Hor dauzkat jarrita bi aulki, eta horietan itxoinenez haranzko zokoraino ailegatzen naiz. Han jarri, eta arrosarioa esaten dut, neure burua zaintzeko. Leitu ere egiten dut, zerbait egiten dudala uste. Arantzazuko kalendariotik aritzen naiz, edo liburutik. Loreak ere zaintzen ditut, mordoxka daukat sartuta... Horrelaxe bizi naiz”.

AZKEN HITZA: BERRIZ JAIOA

“Berriz jaioko banintz ez nuke egingo egin dudana baino. Ez dut espero. Lau seme-alaba hazi ditut. Gizona gerran hondatu zen eta horrekin nahiko lan ibili nuen. Haren beharrak egin nituen, hala ere. Zer gehiago egin behar dut? Seme-alabak zein baino zein, suhiak eta errainak... Egin dudana baino gehiago ezin egin nik”.



Baserrian bizi izan zara beti, kalera gabe kasik.

Jaisten ginen, bai, enkargutara, poltsak bizkarrean nituela. Mandoa ibiltzen genuen, ez baitzegoen kotxerik orduan, eta biderik ere ez. Apaizak berak etortzen ziren hona, bazkaritara. Eta medikuak, eta haiei ere jaten ematen genien. Bertsolariak ere bai, bordara. Uztapide-eta etorrita daude hona. Jendea ibili zen hemen, bai. Kaletik aparte dago Barin. Erreterian gara, baina hortxe dago Oiartzungo muga, eta Oiartzun dena gurutzatuta etortzen da hona. Ahizpa bizi nuen Belastegi baserrian, eta etxearen erdia Oiartzunen zuen eta beste erdia Erreterian. Belastegi-berri duzu orain han. Zelaian egin zuten etxe berria.

Eta kalera enkargutara jaitakitakoan, gaztelania beharrik ez zenuen?

Bai... Baina "No sabes, no comprende" esan eta aurrera egiten genuen. Konpontzen ginen. Orain ere euskaraz segitzen dut telebisioa, programa dagoenean, notiziak, pelikularen bat baldin badago...

Euskaraz.

Bai. *Kastellanoz* ez. Ez dakit eta. Oiartzun oso euskalduna da, baina *kastellano* franko sartu da hor.

Arrunt kanbiatu da mundua ordutik hona...

Bai, horixe. Mundua... edo mundukoak kanbiatu dira? Seguru ez dakit, baina nik esango nuke mundukoak gehiago kanbiatu direla mundua bera baino. Mundua lehen bezalakoa izango dela pentsatzen dut nik, baina mundukoak ez. ●

energy

otsailak 1,2,3
febrero 2019

Eraginkortasun energetikoa
Eficiencia energética

Mugikortasun jasangarria
Movilidad sostenible

Ingurumen berrikuntzak
Innovación medioambiental

azoka feria

Landako Gunea, Durango

www.berdeago.com

berdeago

antolatzailea | organizador

berdeago | patroiztagarria

BIZKALAN
SOSTAINU BIKO

BIZKALA

ENERGIAREN
BURKAL ERABAKINDA
ENTE UNICO
DE LA ENERGIA



Iritziak

Ez da *low cost*



MIKEL ZURBANO
EHU-KO IRAKASLEA

Kostu apaleko edo *low cost* ekonomia indarrez hedatzen ari den errealitatea da, nahiz eta zaila den bere tamaina zehaztea. Ez da erraza neurtzea sarritan katramila edota merkataritza amua baino ez dena. Nola-nahi ere, ekonomia krisiaren ondoren biztanleriaren zati handi baten erosteko ahalmenaren galerak bultzatuta *low cost* estrategia ekonomia sektore gehienetara zabaldu da.

Aldekoen argudioa honako hau da: krisiaren ondoren erosteko ahalmenaren galera nabaria eman da eta pertsona ugari ezin diote lehengo kontsumo mailari eutsi. Ingurumaria horretan sortzen dira prezio egokia duten produktu edo zerbitzuak eskaintzeko prest dauden enpresak. Beraz, bezeroari begira jarrita enpresa horiek beren produkzio kostuak doitu egin behar izaten dituzte. Lehen begirada batez, merkatura bideratutako estrategia horrek lehiarako argudio sendoa du. Harago joanda, gizarte ardura handiko enpresak direla diote ahots batzuek, krisiak gehien kaltetutako jendea-ri ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko erraztasunak eskaintzen dizkiotelakoan. Bada, ikuspegi hori amarrua da eta sako-neko egoerak beste zerbait erakusten du.

Hasteko, ekonomia mota hori ez zen 2008ko krisiarekin jaio. Aurreko mendearen amaieran enpresa batzuk prozedura hau erabiltzen hasi ziren kostuak murrizteko. Beraz, ez da bezeroari begira jarritako enpresa estrategia, baizik eta enpresen barne kostuak kontuan har-

**LAN BALDINTZEN NARRIADURAK
ETA "LOW COST" ENPRESEK
HORNITZAILEEKIKO DUTEN
HARREMAN BERTIKALEK ETA
LAN BALDINTZA ESKASEK BEREN
PRODUKTU EDO ZERBITZUEN
KALITATEA ZALANTZAN
IPINTZEN DUTE**

tzen duena. Kostu horiek beheartzeko helburua giltzarria da, batez ere soldatak murriztuta lan kostuak apaltzea. Aire edo oihalgintza sektoreetan asko erabiltzen da eta bertako jomuga nagusia lan baldintzak murriztea izan da. Ondorioz, ezaguna denez lan gatazkak ugaritu eta lanaren narriadura areagotu egin da sektoreetan. Ekonomia digitalean ere prezio lehiakorren estrategia hau ezarrita dago eta autonomo faltsuen lan sisteman oinarritzen da. Honela, gizarte segurantzaren kostuak saihesten dira eta finantza etekin mardulak eskuratzeko aukera ematen die enpresa horiei.

Herri eta auzoetako denda txikiek dituzten biziratuteko arazoetan frankizia gisako *low cost* kateen ezarpenek erantzukizun itzela dute. Prezio apalak jasan ezin dituzten komertzioak desagertzeko bidean dira eta hasiera batean bezeroa-

ren onura den prezio apala epe luzean ahitu daiteke oligopolioak indartuz doazen neurrian.

Gainera, esan beharra dago lan baldintzen narriadurak eta *low cost* enpresek hornitzaileekiko duten harreman bertikalek eta lan baldintza eskasek beren produktu edo zerbitzuen kalitatea zalantzan ipintzen dutela. Eta errealitate horrek zuzenean desegiten du enpresa mota horiek bezeroarekiko onura bilatzen dutela esaten dutenen ikuspegia.

Horrenbestez, esan daiteke *low cost* ekonomiak gizarte eta ingurugiro kostu esanguratsuak sortzen dituela. Prezioen inguruko lehia lan kostuak murrizteko soldata mailaren kaltetan eta langileen baldintzen narriaduran oinarritzen da. Kostuen murrizketa berrikuntzaren bidez ere eman liteke baina horrek inbertsio sendoak eskatzen ditu eta enpresa mota hauek epe laburreko etekin azkarrak bilatzen dute.

Honez gain, prezio apalen atzean ingurumenaren kutsadura eta narriadura dago (aire eta aisialdi zerbitzuak, adibidez), edo oihalgintzan ematen den produkzioaren deslokalizazioa. Hots, kostu apalaren estrategiak ekonomia kostu esanguratsua duten gizarte eta ingurugiro arloko kanpo eragin negatibo andana ekartzen du. Eragin negatibo horiek guztiak jendarteak ordaintzen ditu zergen bidez. Beraz, kostu horiek produktu edo zerbitzu merkeen prezioei erantsiko bagenie, *low cost* delakoaren iruzurraz jabetuko ginatke. ●

Datu sarekada, norentzat?



IRATI ELORRIETA
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Ordena (natural) baten bila atera dira mundura. Bidaietara eramanenez mundua neurtzeko, sailkatzeko, finean ordenatzeko kutxak, maletak, trepetak, metodoak, patroiak, hitzak. Eta grina nekaezin horretan, zer den jakingura, pertsonen gorputzen ezau-garriak neurtzen eta sailkatzen ere hasi dira: ilearen, begien, azalaren koloreak deskribatzen eta katalogatzen.

XVIII. mendeko gizon europar haien neurketek beste gizon europar batzuek arraza kontzeptua asmatzeko materialer, zenbakiz, frogez hornitu zituzten. Koloreen izenen arabera ondorioztatu eta banatu ziren izaera kontuak. Kategoriatu kontuak bihurtu zirenak, banatzen zuenaren interesen arabera. Nor gehiago, nor gutxiago. Berdinak ginela baina ez ginela berdinak justifikatzeko primeran zetorren kontzeptua. Neurketak egin zituztenetako batzuk beren deskribapen zehatzetatik ateratako ondorioekin ados egon edo ez: Hor zeuden datuak. Eta datuekin zer egin, ez du derrigor erabakitzen datuak bildu dituenak. Ondo sar dezagun hau kaskoan.

Tanta bat handik, beste bat hemen-dik, Txinako plan digitalaren soinuak heldu zait azken aldion. Gizartea hobe-

to ordenatzeko sistemak probatzen ari omen dira. Kreditu sozialaren ideiarekin ordenatu nahi dute eguneroko bizitza. Teknologia definitu nahi du Txinan zein biztanle saritu eta zein zigortu. Semaforoa gorritz gurutzatzen duenaren aurpegia identifikatzen du kamerak, dagozkion izen-abizenak eta nortasun agiriko zenbakia erakusten ditu. Aurpegi-neurketak egiteko programak garatzen ari diren informatikari gazteek inongo espanturik gabe egiten dute beren lana.

Tradizio luzea du datuen bilketa, konparaketa, multzokatze, sailkatze eta horren guztiaren ondorio diren kategorizazioak. Zientziaren eskutik, ehundaka urteko praktika. Digitalizazioak are sublimatu egiten dituen gaitasunak dira. Badakigu kategoriak sortzeaz gain, milioika jenderen hilketa eta erbestertzea arrazoitu duela arrazaren ideiak.

Guretik begiratuta, ikara eragiten duen kontrol-gizartea izan daiteke Txinatik heltzen den irudi hori. Baina nori inporta zaio. Guk uste dugu teknologia gure onurarako erabiltzen dakigula eta gure bizitzak ordenatzen laguntzen diguten aplikazioak instalatzen ditugu telefonoetan. Batzuek gaueko atsedena dokumentatzeko beharra dute, beste ba-

tzuek akaso esnea erostea edo email bat bidaltzea gogoraraziko dien zereginen-managerra. Denentzako dago zerbait. Lagun batek bere alkohol kontsumoa behatzen, analizatzen eta kontrolatzen laguntzen dion aplikazioa erakutsi dit. Aplikazioak diskrezioa eta oinarri zientifikoa izatea saltzen du. Hala izango da. Baina bizitza estiloa hobetzeko promesaren trukean gure daturik intimoenak erakusten ari garelako begitandu zait.

Dena ordenatzeko grina, datuen bidez ikusgarri eta ulergarri egitekoa, dena optimizatzeko, arrazionala izan daiteke. Arrazionaltasuna denerako neurria ez dela frogatzen du horrek niretzako. Arrazoiak eta telefonoa noizean behin itzalita, hobeto gaude. Bidaltzea ahaztu zaidan email zeharo garrantzitsua hori, beharbada, ez zen horren garrantzitsua. Urtea bukatu baino lehen erabaki nuen nire to-do zerrenda tradizionala aurten ere ez egitea. Asmo gehienak ez nituen inoiz betetzen eta helburuen presiorik gabe, hobeto atera ziren gauzak 2018an. Salbuespena: garbiketa digitala egiteko aholkua jarraitzeko xedea hartuko dut. Pasahitz berriak jarri, onak, eta haiek administratzeko programa bat erabiltzen hasi. ●

Mikrohomofobia



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Oso barneratuta ditugun keinu txiki, iruzkin edo aurreiritziei mikromatxismo esaten zaie. Oso barneratuta dauzkagu eta ez ditugu matxismoztat jotzen. Horretaz maiz mintzatzen da egun. Gure burua antimatxistatzat dugunok ere esan/egin ohi ditugu horrelakoak ohartu gabe. Mikromatxismoa da, adibidez, senarrak andreari esatea etxean “laguntzen diola”, kontziente edo inkontzienteki onartzen baitu etxeko lanak andreari dagozkiola. Matxista izango litzateke halaber emakumeei sistematikoki galdetzea noiz izango diren ama, eta ez gizonei noiz izango diren aita.

Mikrohomofobiaz, aldiz, ia ez da ezer entzuten. Eta egon badago. Mikrohomofobia da, esaterako, neskatoari galdetzea ea senargaia daukan, edo mutikoari ea andregaia daukan, neskak andregaia edo mutilak senargaia izan lezakeela kontuan hartu barik. Hori etengabe gertatzen da. Nahiagotasun homosexualeko guztiok, nolabait esatearren, jasan dugu sufrikario hori bizitzaren garairen batean, hein handiago edo txikiagoan. Huskeriari *marikonada* deitzea ere bada mikrohomofobia. Ustez heterosexuala den norbait lagunari ze *marika/marikoia* zaren esatea ere, behar bezain gogorra, hotza, kementsua edo bortitza ez den zerbaite esaten edo egiten duen bakoitzean, bada

mikrohomofobia. Edo aitak alabaren andregaia aurkeztea esanez “hau alabaren adiskidea da”.

Gaitza hain dago hedatuta, gehienetan hain oharkabea pasatzen zaigu, ezen prentsa ere ez den bekatutik libre gelditzen. Homofobiaren behatokia, noizbehinka jasotzen dugu horren inguruko kexarik. Hori dela eta, berriki egon gara egunkari bateko arduradunekin harremanetan salatzeke ohiko zutabegile batek idatzietan sarri erabiltzen dituela mikrohomofobiatzat har litezkeen esamolde edota kontzeptuak, bai eta, are larriagoa dena, *mikro* aurrizkia gabe homofobia argiaz kalifika litezkeenak ere. Eskatu genien salaketa-gutuna edo iritzi-artikulua argitaratzea behintzat, horretaz guztiaz hausnarketa eginez. Bada, ez da modurik izan. Gaindiezinezko horma batekin egin dugu topo: aniztasunaren eta adierazpen askatasunaren izenean, orriak zabalik ei dituzte pentsamolde guztietara. Pentsamolde horietako batek irakurle anitz mintzea ez bide zaie axola, ezta gizarteak berak hautatu dituen elkarbizitza-arauekin kontrakoa bada ere. Honek beste eztabaida batera garamatza: askatasun adierazpenerako eskubidea gizakion duintasun eta errespeturako dugun eskubidearen gainetik al dago? Zentsura al da gorroto-diskurtsoen kontra ekitea? ●

Ehun(du)



LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA
@txargain

Irazkiko haren artetik bilbekoak pasaraziz, ehuna moldatu”. Hala definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak *ehundu* berba. Ehungailuan jartzen dira irazkiak (goitik beherako hariak, tenkatuta eta mugitzen ez direnak), eta euren artetik, zeharka, bilbea (beste haria) ezker-eskuma pasatzen da anezkarekin (orratz erraldoia), oihala gauzatu arte.

Iaz Euskaltzaindiak ehun urte bete zituen, eta *Euskara ehuntzen* leloa aukeratu zuen urteurrenerako. *Argia*-k ere ehun urte bete ditu aurten, zaharizatea akats legez ikusita dagoen sasoi

honetan. Baina aldizkari hau zaharra izan arren, etengabe dabil eraikitzen, produzitzen, oihala egiten, berritzen, gure errealitatea ehuntzen.

Artikulu honen izenburua originala ez bada ere, esango nuke gure aldizkaria zerutik argitzen hasi zitzaigunetik, eta txikitik eragiten, gelditu barik aritu dela irazkia eta bilbea uztartzen, anezkaz gurutzatzen. Irakurleak eta informazioa, Euskal Herria eta mundua, beti euskaraz.

Zorionak, *Argia*. Zorionekoak zuek, *Argia* Jendea. Beste ehun urte ere jardungo ahal du ehungintzan! ●

Lilura etsigarriak, etsimendu liluragarriak



INMA ERREA
IDAZLEA
@inmaerrea

PESen *Langaia*k bildumako hirugarren zenbakia (1983ko abuztuko) agertu berri zait etxean. Izenburua: *Debate sobre la conciencia vasca en Navarra. Un aporte sociológico*. Edukiak (Nafarroan barna eratutako lau mahaitan egindako debatearen emaitza) gaur-gaurkoa dirudi parte batzuetan.

Atzera begirako *déjà vu* bat? Sorginzu-loa? Betiereko itzulera?

Errepikapen etengabe baten sentipena areagotzen du bildumako aurreko izenburuen eta ondorengoaren aipuak. Lehen zenbakia: *Dos siglos controvertidos en la historia de Navarra. De las guerras carlistas al Amejoramiento Foral*. Bigarrena: *Aportaciones de mujeres a su propia historia*. Eta laugarrena –hurren argitaratuko zena–: *La educación sexual en la escuela*.

Nafarroan ametsa sortu zen behin: maiz eternala dirudien sistema politikoa aldatzeko ametsa. Amets horrek hainbatetan egin zuen huts (Otano kasua, 2007ko *agostazo* hura...), eta beste hainbestetan berpiztu.

Eta irauteko behar adina indar hartu zuen 2015ean.

LASTER, BEREHALA BAITATOR
MAIATZA, IKUSI AHALKO
DUGU NAFARROAN 2015EAN
AMETS BATETIK SORTUTAKO
PROIEKTUA NORAINO IRITSI DEN,
ZENBATERAINOKO INDARRA
HARTU DUEN, EDO ZENBAT
IZAN DUEN LILURATIK

Gorpuztu zen, hezurmamitu, eta lilura sortu zuen, ilusioa, poza, itxaropena.

Orain, gauzak aldatzeko izan den saialdi luzeenean bizi gara Nafarroan.

Halako saialdi batek, ametsak berak emandako bultzadaz gain, beste osagai batzuk behar ditu: enantzua eta lana –nekeza, askotan–; malgutasuna, nora-bidea zuzentzeko, behar den orotan; tre-bezia, jakiteko noiz, eta zertan, eman behar den amore (eta zertan, eta noiz,

ez); artea, ametsen eskutik datozen lilurei nahasmenduak sortzen ez uzteko; arintasun eta umore pitin bat (eta adorea, dosi handietan). Eta, abenturetako pelikuletan bezala, ahalmen handia, klase orotako tranpak saihesteko.

Ezen, oraingoan ere, arazo batzuk agertu dira –harrigarriki bateraturik agertu ere–. Eta, berriro ere, arazo horiek, aurrekoetan bezala, ez dira ez funtsezkoak, ez errotikoak. Haien kausak ilunak eta konprenigaitzak dira, eta ondorioa, ordea, argia eta ulerterraza: oztopo bihurtzea hartutako bideari segida emateko.

Amesteak bultzada ematen du gauzak egiteko, baina aldi berean ametsak badute, beti, zerbait, edo asko, liluratik.

Laster, berehala baitator maiatza, ikusi ahalko dugu Nafarroan 2015ean amets batetik sortutako proiektua noraino iritsi den, zenbaterainoko indarra hartu duen, edo zenbat izan duen liluratik.

Nafarroan badago arriskua lilura etsimendu bihurtzeko. Haatik, hori baino okerragoa izanzen litzateke etsimenduak liluratuta gelditzea, pentsatzea ez duela merezi berriro amestea. ●

**Oinarrietatik haztea,
ona izatea eta hoberena izatea
gauza bera ez direla ikastea da.**

Aukeratu hezkuntza eredua
etorkizunean izatea nahi duzun
pertsonean pentsatuta.

Matrikulazio aldia: Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra arte.



**KRISTAU
ESKOLA**

OINARRIAK JARRIZ,
EZAGUTZAK EZARRIZ.

Aukera ezazu zure zentroa
kristaueskola.eus-en



SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20

Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

**POBREZIAREN AURKAKO ETA DIRU SARRERAK
BERMATZEKO ERRENTAREN ALDEKO HERRI EKIMEN LEGEGILEA**

POBREZIA BUKATZEA EUSKO LEGE BILTZARRAREN ESKU

“Ikusten genuen hazkunde ekonomikoko fase batean egonik ere pobrezia eta bazterketa gora doazela”, dio Eskubide Sozialen Kartako kide Bea Martxuetak. Honen aurrean, 2018ko martxoan abiatu zuten Babes Sozialeko Sistema Publiko eta Kalitatezko Baten Aldeko Herri Ekimen Legegilea (HEL) Gasteizko legebiltzarrean, eta urrian hura babesten duten 51.000 herritarren sinadurak aurkeztu zituen Kartak. Talde politikoek proposamena otsailean eztabaidatu eta bozkatuko dutela aurreikusten da. Hurrengo asteak, beraz, erabakigarriak izango dira ekimen herritarraren ibilbidearentzat (Nafarroako legebiltzarrak iragan urteko martxoan itxi zion bidea HELari).

TESTUA | ZIGOR OLEAGA

Ikusi Urizarri Hernandez ekonomialaria da, eta 24 urte daramatza prestazio sozialen aholkularitza bulegoetan pertsoneri arreta eskaintzen. Lehenbizi Gasteizko Txiroekin Bat Eginik plataformarekin, eta hori desagertuz geroztik Argilan-ESKn. Talaia ezin hobea, datu hontzen atzean ezkutatzen diren errealitate gordinak hurbiletik ezagutzeko.

1989an jaio zen gaur DSBE izenaz ezagutzen dugun prestazioa, garaian Gizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera. Oro har 1989-2008 epealdia prestazio sozialak osatuen eta bermatuen egon diren garaiak lirakeke Urizarriren uste-tan, tartean onerako zein txarrerako izan ziren moldaketak egonik ere. “2008tik egiten diren aldaketa guztiak okerrerako dira”. Urte horretan, Patxi Lopezen gobernuak 18/2008 legea garatu zuen PSE

eta PPren aldeko bozkekin eta EAJren abstentzioarekin. Besteak beste, etxebizitza bakoitzeko bi DSBEko muga ezarri zuten: “Migranteei eta ikasleei bereziki, pisua konpartitu behar dutenei, kalte handia egin zien”. 2011n beste urrats bat eman zuen Gobernuak prestazioen murrizketan eta prekarizazioan, Gemma Zabaleta sozialista buru: “DSBE oinarritzko gizarte zerbitzuen saretik atera eta Lanbiden sartu zuen, zerbitzua asko okertzea ekarri zuena. Eta exijitzen zen antzinatasuna urte batetik hirura pasatu zuten”. EAJk laster hartu zuen Gobernu berriz ere: “Aurreko aldaketa guztiei eutsi, eta moldaketak eginez aitzakorakada eman zuen: diru kopuruan %7ko behera-pena inposatuz eta zenbatekoa Gutxieneko Soldatatik deslotuz. Ordutik aurrera, Lanbideren funtzionamendua oso-oso

gogorra izango da prestazioa jasotzen duten pertsonen aurka”.

Harritzekoa da DSBEren eta gainontzeko prestazio sozialen bilakaera. Pobrezia eta bazterketa ekiditeko sortu ziren legeak eta baliabideak 80ko hamarkada amaieran. 2008tik aurrera, krisi kapitalistak eta gobernuen politika ekonomikoek pobretuak biderkatzen dituzten garaian hain zuzen ere, prestazio horien aurkako egiturazko ofentsiba abian du Eusko Jaurlaritzak: zenbatekoak murriztu ditu, baldintzak gogortu eta arreta prekarizatu du, prestazioen zein pobretuen kriminalizazio kanpainak abiatzen dira iruzurraz mezu faltsuak zabalduz edota diskurtso arrazistak garatuz. Ekonomiak hazkunde-zikloa berrartzean, ordea, ez dira krisiaren garaian eta horren izenean hartutako neurriak desaktibatuz.



2018-02-23, GASTEIZ

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta bazterketa sozialaren aurka garatu duen Herri Ekimen Legegilea erregistratu zuen unea. Otsaila hasierako osoko bilkuran bozkatuko dute alderdiek lege bihurtzeko prozedura abiatu edo ez.



HEL-AREN PROPOSAMENA DSBE JASOTZEKO

- Urtebeteko erroldatzea aski izatea
 - Adina 18 urte izatea
- Etxebizitza bakoitzeko DSBE mugarik ez
 - Diru kopurua Gutxieneko Soldataren parekoa izatea



DSBE JASOTZEN DUTENAK

- %25,8 pentsiodunak dira
- %20 langile prekarioak dira
- %72,8 bertan jaioetakoak dira eta %27,2 atzerrian jaioetakoak



BABESIK GABEKO POBREZIA

Pobrezia egoeran edo arriskuan bizi diren 194.060 pertsonetatik 59.497 pertsona (%30,7) babes-sistematik kanpo dago.



ZERGATIK ORAIN DSBE MOLDATZEKO EKIMENA?

"Ikusten genuen hazkunde ekonomikoko fase batean egonik ere pobrezia eta bazterketa gora doazela" dio Kartako kide Bea Martxueta Perezek. Horren adibide, DSBE jasotzen dutenen soslai: %25 pentsionistak dira, gehiengo nabarmena emakumezkoak, euren erretiro-pentsioen eskasagatik diru-sarrerak osatu beharrean daudenak; %20 langileak dira, enplegua izanagatik ere bizitzeko adina irabazten ez dutenak. Langile pobreen errealitatea biderkatzen ari da, urteotako oldarraldi neoliberalak eta lan-erreformek ahalbidetuta. "Enpresariak ordaintzen ez duten soldata zatia gu ari gara osatzen diru publikoaren bitartez", salatu du Martxuetak.

Urrats laburra eta begirada luzea zartatu nahi izan dituzte HELarekin: "Gutunean eragile sozial andana eta sindikatu asko gaude, mahai gaineen gauza asko daude eta HELak ezin ditu denak jaso. Erabakia izan zen HELa legeen aldake-

tan zentratzea", dio Martxuetak. DSBE-ri dagokionez, bazterkeriaren aurkako mugimenduen aldarrikapen historikoak jasotzen ditu proposamenak: erroldaren antzinatasuna urtebetera bueltatzea; adina 23 urtetik 18ra jaistea; etxebizitza bakoitzeko egon daitekeen bizikidetzak-unitate kopuruari -eta, hortaz, DSBE kopuruari- mugarik ez jartzea; diru kopurua Gutxieneko Soldatari lotzea berriz ere, eta ehuneko ehunean parekatzea; Gizarte-Larrialdiko Laguntzak eskubide subjektibo bihurtzea. "Neurri horiek ez dute sistema aldatuko, baina pertsona askoren bizitza aldatu dezakete".

Testu artikulatuan proposatzen diren neurri zehatzak urrats laburra bada, hitzaurrearekin argi luzeak piztu eta jendarte ereduaren eraldaketan jarri nahi da fokua Martxuetauren aburuz. Lehenik, errealitatearen koadro lazgarria marrazten du Kartak: "Hego Euskal Herriko bazterkeria sozial eta pobrezia mailak kezka larria eragiten du (...) biztanleriaren sektore gero eta handiagoa

bizi da baliabide ekonomiko nahikorik gabe gutxieneko ongizate maila bat iza-teko". Jarraian, oso bestelako koadro bat eraikitzeke trazu nagusiak proposatzen ditu: "Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eredu neoliberalarentzako alternatiba proposatzen du; bere eredu ekonomiko eta sozialak lehentasun osoa ematen dio bizitzaren eta Lurraren defentsari, eta ez gutxiengoaren interesei; lana kapitalaren gainetik kokatzen du, eta pertsonak, merkatuaren gainetik". Batetik, politika publikoen birnorabidetzea exijitzen da: aberastasuna zein lanak -guztiak- banatu; sozialki onuragarria izango den enplegua sustatu. Aldi berean, erabakitzeke ahalmena aldarrikatzen da politika horien guztien inguruan.

"Hitzaurreak sekulako indar politikoa dauka", ziurtatzen du Martxuetak. "Proposatzen ditugun aldaketa zehatzek ez dute sistema aldatuko, hori oso argi daukagu. Hitzaurreak bai, ordea, eta hori da gure bidea".



EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Ehundik gora herri mugimendu eta sindikatu batzen ditu. 2013. urtean jaio zenetik, ekimen ugari garatu ditu: besteak beste, Alternatiben Herriaren edizioak, mobilizazioak, hitzaldiak, agerraldi publikoak eta barne mailako topaketak. EAE eta Nafarroako legebiltzarretan aurkeztutako Herri Ekimen Legegileek (HEL) Kartaren ahaleginak zentratu dituzte azken hilabeteotan. Ekimen legegileak proposatzen dituen neurri zehatzak Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan (DSBE) oinarritzen dira, nahiz eta Gizarte-Larrialdiko laguntzei eta Etxebizitza eskubideari zuzendutako proposamenak ere jasotzen dituen.

LEGEBILTZARRAREN BIDE KORAPILATSUETAN BARNA

2008ko legea da indarrean dagoena, ondorengo urteetan egin zaizkion moldaketak barne. 2017ko maiatzean Gobernuak lege-proiektua aurkeztu zuen, "kontsentzu zabaleko pakto soziala" sustatzea helburu. Prozesu horren baitan abiarazi zuen Karta Sozialak HELa, 2018ko martxoan. Hilabete geroago, apirilaren amaieran, Gobernuak bere lege-proiektua alboratu eta Gobernu osatzen duten PSE eta EAJko legebiltzarreko taldeek DSBERen erreformarako lege-proposamena aurkeztu zuten. Ekainean bertan eraman zuten osoko bilkurara onarpen bila. Babesik ez zutela ikusita, ordea, bozketak galdu baino nahiago izan zuten epeirik gabe atzeratu.

Ez da ohikoa Gobernuak lege-proiektu bat bazter uztea Gobernu osatzen duten talde politiko berberak horren ordezkari lege-proposamen bat aurkezteko. "Erreformaren onarpena azkartu beharra" argudiatzen dute EAJk eta PSEk lege-propo-

samenaren sarreran. Alta, Karta Sozialaren kideen ustean arrazoia oso bestelakoa da. Martxuetak gogor salatu du bi alderdien jarrera: "Helburua HELa neutralizatzea da. Lege-proposamenaren forma ematea ez da kasualitatea, prozedura askoz azkarragoa baita. Ez ditu onartzen osoko emendakirik, bakarrik partzialak, eztabaida kaitzen da. Guk HELa aurkeztu eta hilabetera haiek lege-proposamena aurkeztu dute; eta orain gertatu da aurreikusten genuena". Izan ere, abenduaren 18an Gobernuak HELaren aurkako iritzia adierazi zuen; horretarako argudio nagusia zen jada proposamen bat tramitatua dela: PSE eta EAJrena, hain zuzen ere. "Bagenekien hori izango zela jokaldia. Aurreko operazio guztia ikusita, Gobernuaren jarrera eztabaida bahitzea izan da", dio Martxuetak.

ALDERDIEN JARRERAK ETA IRITZIAK

Bi dira, gaur-gaurkoz, DSBE moldatzeari begira erdigunea hartu duten proposamenak: PSE-EAJrena eta Karta Soziala-

rena. PSE-EAJren lege-proposamenaren neurri gehienak murrizketen eta kontrola areagotzearen bidetik doaz. Garrantzizkoenera mugatuz: Etxebizitza bakoitzeko DSBE bakarra (neurri horrekin 7.500 bizikidetz-unitatek $\sim 13,5\%$ galduko lukete DSBERako eskubidea, hau da, 15.000 pertsona inguruk); diru-kopuruak ezartzeko modua aldatzea eta oro har zenbatekoak jaistea (portaeraren arabera diru-kopuruak mantendu edo murrizten dituen zigor-sistema bat gehituz); hatz-marka digitala eta bestelako kontrol neurriak. Zenbait egoeren aurrean babesa zabaltzea ere jasotzen du proposamenak. Errefuxiatu estatusa dutenek erraztasun gehiago izango lituzkete, eta familia ugarientzako diru-kopuruak areagotzea aurreikusten da, esaterako. Oso pertsona gutxi eragingo liokete neurri horiek, ordea.

EH Bilduko Nerea Kortajarena Ibañez eta Elkarrekin-eko Tinixara Guanche Suarez legebiltzarkideak bat datoz kritiketako askotan: "DSBE bermatzea ez, kontrola bilakatzea da helburua. Eta sistema kal-

USTE USTELAK DESERAIRITZEKO ARGUDIALEGIA

"Jar daitezela lanean, alfer bizi da prestazioetatik"

- DSBEn onuradunen %25,8k ezin du enplegurik bilatu: pentsionistak dira, erretiro-pentsioa osatu beharra dutenak bizitzeko.
 - %20 langileak dira jada, enplegua dute baina euren soldata eskasak osatu beharra dute bizitzeko.
 - Gainontzekoak (%55), enplegua aktiboki bilatzera behartuak daude, DSBEn galtzen dute bestela.
- Onuradunen ia erdia, edo lanean dago edo erretiroa hartuta. Lan-merkatua da gainontzekoak enplegutik kanpo uzten dituen.

"DSBEn kontrol zorrotzagoa behar da"

- DSBEn jasotzen duen pertsona batek: kontu korronteak kontrolpean ditu; dirua zertan gastatzen duen kontrolatua du; edozein aldaketa 15 egun baino lehenago jakinarazi beharra du; polizia etxea miatu diezaike aurreabisurik gabe...
- Prestazio eta diru-laguntza guztien artean DSBEn da, nabarmen, kontrol neurri estuenak dituen.

"Migranteek prestazioen sistemara neurritz kanpo jo eta bideraezin egiten dute"

- DSBEn onuradunen %27.2 pertsona migranteak dira, EAEko biztanleriaren %9.2 osatzen dutenean. Pobrezia migranteen artean %30.7 da, bertan jaiotakoaren artean %4.1. Pertsona migranteek jasotzen dutena baino diru gehiago uzten dute gure lurrean.
- Biztanleria kopuruaren arabera, migranteen kolektiboak neurritz gaineko presentzia du DSBEn onuradunen artean; pobrezia egoeren arabera, migrante gutxiagok jasotzen dute DSBEn.

"Egiazki behar ez duen pertsona askok jasotzen du DSBEn, sistemaren babes gehiegizkoaz aprobetxatzen dira"

- Eusko Jaurlaritzaren azken Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkesta (2016): pobrezia egoeran edo arriskuan bizi diren 194.060 pertsonetatik 59.497 pertsona (%30,7) babes-sistematik kanpo dago.
- Babes-sistemak hamarnaka mila pobretu babes gabe uzten jarraitzen du.

"Baina ez dago dirurik"

Gobernuak 2019rako aurkeztu zituen aurrekontuetan DSBEn %3.28 zen, 387 milioi euro: iruzur fiskala bost aldiz gehiago da, urteko 2.000 milioi eurokoa. Dirua sobera dago, borondatea dago faltan.

kulu ekonomizista neoliberaletatik eraiki nahi da", dio Kortajarenak. "Pertsona onuradunen kanporatze masiboa ekarriko luke, eskubidearen murrizketa praktikoa. Kontrolaren logikatik egiten dute, iruzurraren diskurtsoetik", Guanchek.

Herri eragileek eta sindikatu oso desberdinek ia aho batez eta puntu berberak azpimarratuz kritikatu dute lege-proposamena: REASEk, Karta Sozialak, CCOOk, UGTk edo Caritasek, besteak beste. Iruzurraren diskurtsoetik abiatzen dela salatu dute, eta horrek pobrezia kriminalizazioan sakontzen jarraitzea dakarrela -Gobernuaren datuen arabera, iruzurra inoiz ez da heldu %1era-. Oro har proposamen murriztailea dela diote, helburua hain zuzen ere prestazioak hedatzea izan behar duenean.

Murrizketena "egin daitekeen irakurketa bat" dela dio EAJko legebiltzarkide

Amaia Arregi Romaratek. Diru-kopuruak kalkulatzeko modu berria objektiboagoa dela defendatzen du eta, edonola ere, "beti buruan" izan beharra dagoela sistemak "jasangarria izan behar duela, gaur eta bihar ere, jakinik dirua finitua dela". PSEko Gloria Sanchez Martin legebiltzarkideak dio diru-kopuruena alderantziz dela: "kalkuluak egin ditugu, eta kasu guztietan irabazten irteten da proposamen berriarekin" (Argilan-ESK-k egindako zenbakiek kontrakoa diote, familia ugarien kasuan salbu). Arregik eta Sanchezek, biek nabarmendu dute bizikidetzaren unitateen arloan salbuespen asko aurreikusten direla, etxebizitza bat DSBEn bat arau orokorra malgutzen dutenak. Eragile hain ezberdinen kritika komunak "ezagutza faltaren" ondorioa dira PSEko kidearen ustez; "oraindik ez da proposamena azaldu lehenbiziko fasean gaudelako".

HELaren proposamenen inguruan iritzia irauli egiten dira. Sanchezek dio jada EAJ-PSEren proposamena dagoela, osatuagoa eta hobekuntza asko dakartzana: "Guk erreforma integrala proposatzen dugu, eta HELak puntu solteak soilik". EAJko Arregiren iritziz, Kartaren proposamenak "kalean dagoena batzen du. Pentsiodunena... Baina ezin da DSBEn bitartez bete sistema osoak egiten ez duena, 1.080, 1.400 edo 2.000€ arte. Ez da betirako soldata bat ere, ez da Errenta Unibertsala". Bestalde, esatea "politikoki zuzena" ez den arren, gazteek "autokritika" egin beharko luketela uste du: "Nahi dugu 30 urterekin etxetik irteten eta lanean gure gurasoek kobratzen dutena kobratu, kontsumitu... Dena ezin da doan izan, norberaren ahaleginak ere kontuan hartu behar dira". Elkarrekin taldeak begi onez ikusten du HELa. "Kartaren proposamena

azken urteetako murrizketak atzera eginaraztean oinarritua dago, babesa lehenesten du, eta horrekin ados gaude, nahiz guretzako zerumuga Errenta Unibertsala izan”, azaldu du Guanchek. EH Bilduko Kortajarenaren irudiko, Kartako eragileek txalotzeko moduko “sintesi ariketa gauzagarria” osatu dute. “Gauza ezberdinak jasotzen baditu ere, pobreziaren aurkako estrategia baten barruan ulertzen dugu”.

LEGEbiltzarrean Aurrera Egiteko Aukera Gutxi

Behin 51.000 sinadurak balioztatuta, osoko bilkurara helduko da otsaila hasieran. Talde politikoen artean eztabaidatu, Kartaren ordezkari batek proposamena defendatu, eta HELaren tramitazioa bozkatuko litzateke bertan. Onartua izatekotan, lege guztiek betetzen duten prozedura luze berbera bete beharko luke, emendakinetarako aukerak tartean. Baina nekez erdietsiko du ekimen herritarrak aurrera egiterik. PPren babesa baztertuta dago, PSErena ere Sanchezen hitzetan, eta pentsatzekoa da EAJk ere aurkako jarrera azalduko duela, Arregik gaia erabat ixten ez duen arren: “Ez dakit

zer esango dugun, baina gobernuak kontrako iritzia azaldu badu, imajinatzen dut guk ere berdin egingo dugula”. EH Bildu eta Elkarrekin taldeen bozkekin ez dago gehiengorik.

Kurioski, alderdi guztiek erreformaren beharra defendatzen badute ere, litekeena da legegintzaldi honetan lege aldaketarik ez gertatzea. Gobernuak legegintzaldiko erronka nagusietako baten moduan aurkeztu zuen DSBEn erreforma, prestazio sistemaren inguruan paktu sozial zabala aginduz, baina ez du gobernu osatzen duten taldeez besteko babesik lortu. PPrentzako proposamena ez-nahikoa da. Agirrek aukera gehiago ikusten du EH Bildurekin adostasun batera heltzeko: “Euren jarrera Elkarrekin duena baino errealistagoa da”. EH Bildutik, aldiz, eta iragan hilabeteetan elkarrizketetan aritu badira ere, aukera gutxi antzematen ditu Kortajarenak: “Gurekin adosteko, Gobernuak eragileek adostutako neurriak onartu beharko litzuzke: orain artekoa ikusita, zaila ematen du”.

LEGEbiltzarrean Amaitzen da Bidea?

Legebiltzarrak HELa atzera botaz gero, Martxuetak argi du: “Mobilizazioak

egingo ditugu. Eta bere garaian adierazi genuen erronda parlamentarioa ere egingo genuela”.

Dirua egon, badago, Martxuetaren iritzian. “Aurtengo aurrekontua inoizko handiena da. Horrez gain, sortu dezagun dirua”: errenten araberako fiskalitate progresiboa ezarriz, edo %20 ingurukoa den iruzur fiskalaren aurka eginez”. Jendarte ereduaren artekoa da eztabaida eta borroka, ez diru-partiden artekoa. “Ikusten da babes soziala gutxieneko estaldura batera eraman nahi dutela EAJk eta PSEk. Hortik aurrera, bakoitzak bilatu dezala bere irtenbide pribatua. Pentsionistek, adibidez, funts eta pentsio osagarri pribatuen bitartez”.

Martxuetak iragan hurbilera begiratzeko gaurdanik etorkizun bidezkoa goetarako ateak zabaltzen nahian. 1997. urtean Eskubide Sozialen Kartak HEL bat aurkeztu zuen, 83.000 sinaduraren babesarekin eta aldarrikapen berberak ardatz zituen greba orokor batez lagundua. “Hor zeuden adibidez 35 orduak eta soldata soziala deitu zena. Ez zen lortu exijitzen zen guztia, baina egun duguna iraganeko borroken ondorioa da”. ●





eskola txikiak herri eta auzo txikiak bizirik!

GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA	ALTZO	EZKIO - ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRI	OLABERRIA
AGIÑA	ARROA	IGELDO	ZERAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA - GOIATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIZTUR	EREÑOZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	



bai
eskola txikiak
zerbitzuak
eskola txikiak

www.eskolatxikiak.eus

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA LAN MUNDUAN

AITZINDARIAK HASIBERRIAK HAUSPOTZEN

Mondragon Korporazioak hainbat urrats emanak ditu eta ematen ari da euskararen normalizazioak bidea egin dezan. Norabide berean lan egin nahi duten hainbat enpresak bisita egin dio haren esperientzia ezagutu nahian.

AINHOA BRETOS @ob_ainhoa

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak martxan jarri duen egitasmoa da Euskaragiletu. Euskara plana hobetzeko edo sortzeko asmoa duten enpresei zuzendutakoa da. Euskararen normalizazioan aurreratuta dauden Euskaragileak deitzen diete, dozena bat daude talde horretan, eta Kontseiluaren ustez, baliatu beharreko harrobia da, beste enpresa batzuentzat eredu bihurtu daitezkeelako eta haietatik ikasi daitezkeelako.

Dagoeneko hiru bisita egin dituzte. “Ikasleak” ondoko enpresak izan dira: Fagor Automotion kooperatiba, OBE Het-tich, Gorosabel Elektrizitatea, Eika kooperatiba, Mutualia, LagunAro eta Ekide Group. Azken bisitaldia azaroaren 6an egin dute Mondragon Korporazioko Mondragon Zerbitzu Zentralak kooperatibara. Aholkularitza zerbitzua izateko aukera eskaintzeaz gain, etxeko euskalduntze prozesua aurkeztu diete.

EUSKARAZ LAN EGITEKO AUKERA

80ko hamarkadan egin zuen hausnarke-ta Mondragon Korporazioak. Bisitariei azaldu dienaren arabera, euskara maila informalean erabiltzen zen kooperatibetan, barne harremanetarako. Maila formalera eramane behar zela erabaki zuten. Horretarako euskal hitzuna behar zituzten, hortaz, euskaldunak formatzen

hasi ziren, euskara eskolak ematen.

Antzerako pentsamendua dute Euskaragiletu programan parte hartu duten enpresetako kideek. Enpresan, harreman informaletarako euskara erabiltzen dute hainbatek, lanerako, aldiz, ez. Euskara erabiltzeko aukera bermatzeak berebiziko garrantzia duela azpimarratu dute, bai langileei bai gizarteari oro har: “Gure lana ondo egiteko, langileek gustura egon behar dute. Euskaldunei aukera eman behar zaie euskaraz lan egin ahal izateko”. Hori dela eta, euskara planak martxan jarri dituzte horietako batzuek, eta Euskaragiletu programan parte hartzea erabaki dute: “Esperientzia gehiago duten enpresen bizipenak gertutik ezagutzea interesgarria eta oso baliagarria da, euskara planaren bilakaera eta onurak ezagutze-ko, eta laguntza eta aholkuak jasotzeko”.

Mondragon Korporazioko kideak berriagoak diren urratsak azaldu dizkie bisitariei. 2006an, euskara dekalogoia idatzi zuten, *Euskara Normalizatzeko Oinarriak*. Dekalogoaren helburu nagusia euskararen aukera bermatua izatea da, eta horretarako oinarri batzuk ezarri zituzten: euskara ikasteko aukera bermatu eta horretarako baliabideak eskaintzea, langileen artean euskararen ezagutza bultzatzea, kontratatzerako orduan euskararen ezagutza kontuan hartzea, eta

irudian eta komunikazio arloan euskarak lehentasuna izatea, besteak beste.

Prozesu horretan, kontrako jarrera irekirik ez dutela jaso adierazi dute Mondragon Zerbitzu Zentralak kooperatibako kideek. Hortaz, alde horretatik behintzat, ez dute arazorik izan. Bisitaldian egon diren enpresetako ordezkariak, aldiz, hainbat zailtasun agertu dituzte.

LANGILE EUSKALDUNAK KONTRATATU

Bisitan izandako ordezkari batek azaldu duenez, atzerako bidea egin dute enpresan. Harremanak euskaraz zituzten orain urte batzuk: “Gu txikiak ginen, denak euskaldunak, eta dena egiten genuen euskaraz”. Azken urteetan, aldiz, enpresa handitu eta euskaraz ez dakien jendea kontratatu dutela adierazi du. Horrek ondorioak izan ditu, noski, orain erdia ere ez baitute euskaraz egiten, “konturatu gara bide horretatik ez gabiltzala ondo, eta buelta eman behar diogula egoerari”. Orain, sarri, jende euskalduna eta beti euskaraz komunikatu dena gaztelaniaz aritzen da lanean. Horrela adierazi du Euskaragileak batzordeko kidea den Cikautxo enpresako langile batek: “Nik euskaraz egin izan dut dena beti, lanera heldu eta gaztelaniaz. Hori ez naiz ni. Euskalduntze prozesuak lagundu nau ni naizena izaten”.

Kontratazioak egiterako orduan gu-





IKASTEN ETA ADORETZEN. HIRU BISITA EGIN DITUZTE ENPRESETARA: CIKAUTXORA, DANOBATERA ETA MONDRAGON KORPORAZIORA. ARGAZKIKOAK CIKAUTXO ENPRESAN DAUDE UZTAILEKO BISITAN. ARGAZKIAK: KONTSEILUAK UTZIAK.

txieneko ulermen maila ezarri dutela azaldu du beste ordezkari batek: “Gurean bi lerro ditugu, prestakuntza eta kontratazioa. Gure eremua eta errealitatea oso erdaldunak izan dira beti, beraz, ikasteko aukera eskaini behar dugu. Bestetik, langileak kontratatzeke ezinbestekotzat jo dugu langileok gutxieneko ulermen maila izatea”.

HIZKERA TEKNIKOAREKIN ARAZOAK

Harreman informaletarako euskara erabili arren, lanerako ez dute gauza bera egin askok. Horren arrazoa, hainbatetan, hiztegia da. Horrela adierazi dute bisitaldiko bileran: “Gure enpresan hiztegi oso tekniko erabiltzen dugu, informatika arlokoa, ekonomia arlokoa... hizkuntza oso berezia da. Hortaz, lexiko hori ikasi behar dugu, baita gure hornitzaileek ere, bestela ez gaituztelako ulertzen, eta horietako asko atzerrikoak dira. Kanpokoekin komunikatzeko ezin dugu euskara erabili”.

Hainbatek aipatu du lan munduan euskaraz aritzeko beharra ikusten duten arren, bezeroak izaten dituztela Euskal Herritik kanpo, eta kasu horietan bilerak, aktak eta harremanak beste hizkuntza batzuetan egiten dituztela. Beste hainbatek azaldu du, aldiz, Euskal Herritik kanpo etorritako langile asko ari direla euskaraz ikasten.

OHITURAK, ALDATZEKO DAUDE

Euskaragiletu programaren bidez, zailtasunak eta esperientziak partekatu ahal dituzte enpresek. Horietako batzuek azaldutakoaren arabera, bisitak balio izan die ikusteko beste batzuen ibilbidea eta beraiena oso antzekoak direla, eta hainbat kezka berberak direla. Denek egin dute bat ideia batekin: enpresaren dinamika apurtzea da urratsik zailena.

Kasu askotan jendea oso euskalduna da, baina beren arteko harremanak ez. Horretarako, irizpideak, oinarriak, helbu-

ruak eta abar idatzita izatea oso garrantzitsua dela adierazi dute Mondragon Korporazioko kideek. Plan Estrategikoa egin dute orain gutxi beraiek. Bertan ezarri dituzte, esaterako, ondorengo erronkak: euskara normalizatzeko oinarriak eustea, erakunde kultural euskaraz aztergai izan dadin sustatzea, euskara normalizazio egoerara heltzeko estrategiak lantzea, eta Mondragon Korporazioan lidergo eta irudi euskalduna zabaltzea.


Programan parte hartu duten enpresek esan dutenez, bisitak “oso baliagarriak izan dira aitzindariak jarraitutako urratsak ezagutzeko eta aurkitu dituzten zailtasunez kontziente izateko”. Orain, enpresa barruan adosturiko erronka eta xedeak lortu ahal izateko baliabideak eskaintzea behar-beharrezkoa dela aipatu dute. Eta, noski, inplikazioa eta gogoia ere funtsezkoak direla esan dute. Izan ere, “lan munduan euskaraz aritzeko ohitura falta handia dago, baina ohiturak aldatzeko daude”. ●



Hondarribia
euskaraz bizi



"EZIN DA SABEL BAT ALOKATU, EMAKUMEA DA ALOKATZEN DENA ETA HORI ESPLOTAZIOA DA"



Kajsa Ekis Ekman (Stockholm, Suedia, 1980) kazetaria eta *Being and Being Bought - Prostitution, Surrogacy and the Split Self* liburuaren egilea da. Gaztelaniazko bertsioa argitaratu du Bellaterra egitaletxeak 2017an: *El ser y la mercancía: prostitución, vientres de alquiler y disociación*. Bi gai nagusi jorratzen ditu liburu horretan, ikuspegi marxista feminista batetik: emakumeen merkantilizazioaren industria eta emakumeen ugalketa-gaitasunaren eta sexualitatearen apropiazio kapitalista.

EGILEA | MARIA COLERA INTXAUSTI

Nola definitzen duzu prostituzioa?

Bi pertsonaren arteko sexua: batek nahi du eta besteak ez eta kontratu bat ezartzen da. Horren arabera pertsona bati ordaindu egiten zaio bere desirak baztertu ditzan eta ez dezan erabaki ez norekin, ez noiz ez nola izan sexua.

Norbaitek diru-truke sexua izatea onartzeak ez du esan nahi sexua nahi duenik, dirua da nahi duena. Prostituzioan sexua beti da ez desiratu eta, beraz, ordaintzen duena bortxaketaren antzeko zerbait egiten ari da, desiratzen ez duen pertsona bat ukitzen eta harekin sexua izaten ari baita. Horixe da prostituzioaren funtsezko arazoa, eta ez toallarik edo preserbatiborik ez egotea, zergarik ez ordaintzea edo bezeroa itsusia izatea.

Zer erosten da prostituzioan?

Besteak beste sexua, baina prostituzioari buruzko estatistikek erakusten dutenez

prostituzioan aritutako emakume gehienak bortxatuak izan dira, eta, beraz, sexuaz gain, prostituzioa indarkeria ere bada kasu gehienetan: bestea objektu bezala tratatzeko eta hura behartzeko eskubidea.

Prostituzioan aritu ondoren biografia idatzi duten emakume askok azaltzen dutenez, bezeroek ez dute sexua erosten, boterea baizik, sadismoarekin batera. Horrek ez du inolako zerikusirik gizonaren orgasmoarekin, 'Emakume hau erosi dut eta harekin nahi dudana egitea daukat' logika darabilte. Denek ez, noski, badira larrutan egitera doazenak eta kito.

Zergatik diozu prostituzioa ez dela lana?

Lantzat hartuko badugu, lan-alorreko legeria aplikatu beharko diogu eta Suedian behintzat diskriminazioaren aurkako lege bat daukagu, eta argi dio lanean ezin dela inor diskriminatu sexu, adin edo itxura

zehatz bat eskatuz. Kafetegi batera ba-
zoaz, adibidez, eta kafea jartzen dizuna
itsusia bada ezin duzu esan "Ez, zu ez,
zu itsusia zara, kafea gazte lerdan batek
jartzea nahi dut" edo "Ez dut nahi beltza
izatea, asiarra izatea nahi dut". Prostitu-
zioan, ordea, itxura, adina eta sexua dira
ezaugarri garrantzitsuenak. Benetan lana
balitz, zerbitzu bat erosiko litzateke eta ez
hura egiten duena, eta pertsona horri ezin
izango litzaioke ezer exijitu.

Erregulazionismoaren arabera, soldatapeko lana ere esplotazioa da. Zer diozu prostituzioaren eta soldatapeko esplotazioaren arteko erlazioaz?

Ados, baina lana bizitzeko egiten dugu eta sexua, berriz, gozatzeko. Zeren, sexua denok obligazioz egiten dugun zerbait bihurtuko bada, nola liteke kaltetuak emakumeak izatea beti? Horra berdintasun-eza, prostituzioko bezeroen ia %100



gizonak dira eta beren aisialdian joaten dira, ez lanera, ondo pasatzera baizik, eta gero lanera itzultzen dira, edo etxera. Zergatik izan behar du emakume batentzat obligazioa gizonarentzat plazerra dena?

Ederki ezagutzen duzu 'suediar eredu- dua'. Zertan datza eta zer iruditzen zaizu?

Eredu hori 1999an onartu zen Suedian eta bezeroak prostituzioaren erantzule bihurtzean datza. Beti emakumeei buruz hitz egiteari uztea da xedea, beste alde bat baitago, bezeroena, eta haiek dira emakumeak erostea edo ez erostea erabakitzen dutenak. Prostituzioari egiatan amaiera eman diezaioketen pertsonak –sexua erosten dutenak– ikusarazteko edo zigortzeko bide bat da.

Legea indarrean sartuz geroztik egin-dako ikerketek erakutsi dutenez suediar eredu-a da eraginkorrena emakumeen salerosketari aurre egiteko eta beste herrialde batzuk bide berari lotu zaizkio, esaterako, Norvegia, Islandia, Frantzia eta Irlanda.

Baina zenbaitek diote existitzeari utzi ez dion jardun bat klandestinitatera bultzatu besterik ez duela egin sue- diar ereduak.

Prostituzioa beti egon da klandestinitatean nolabait ere, jendea ez baita kale erdian txortan ibiltzen eta Holandan, adibidez, emakumeak erakuslehotan egoten dira, baina sexua beti egiten dute beste gela batean eta bezeroek ez dute Poliziaren zaintzarik onartzen, emakumeei bakarrik egon nahi izaten dute. Horixe da prostituzioaren izaera.

Beste kontu bat da prostituzioa kaltetik Internetera edo pisuetara igaro izana, eta horrek ez du zerikusirik gure legearekin, prostituzioaren Internet bidezko hedapena mundu osoan gertatu baita, ez Suedian bakarrik.

Erosleen eta prostituitutako emaku- meen kopuruak behera egin du?

Bai, baina Suediak ez du inoiz prostituzio-industria handirik izan. Orain prostituzioaren aritzen direnak ez dira milara iristen, 9,5 milioi suediarren artean. Sexu-erosleei dagokienez, lehen zortzitik bat ziren, orain, berriz, hamahirutik bat. Eta gehienek Suediatik kanpora jotzen dute, oporretan joaten direnean Thailandiara edo Kolonbiara, edo Alemanian.

Espainiako Estatuan eztabaida bizia sortu da «sexu-langileen sindikatu» bat legeztatzeko saiakera dela eta. Zer iritzi duzu horretaz?

Ez dut kasu zehatza aztertu, baina nire liburua idatzi nuenean ikertu nituen sindikatuen artean oso gutxi ziren benetako sindikatuak. Gehienak ere prostituzioaren aldeko antolakundeak dira, eta era guztietako jendea dago haien atzean: proxenetak, akademiko neoliberalak, gizarte-langileak, soziologoak, are estatuak ere. Horietako batzuek sindikatu hauetan egiten dute lan, baina ez prostituzioan. Antolakunde hauek pare bat pertsona ezagun izaten dituzte bozeramaile lanak egiten, eta benetako sindikatu bat direla sinestazten saiatzen dira.

Jende guztiak dauka antolatzeke eskubidea, jakina, baina sindikatua izateko industriaren aurka borrokatu behar duzu eta talde hauetako askok ez dute halakorik egiten, prostituzioa legeztatu nahi duten lobbystak dira. Ez diezu inoiz gaizki-esaka entzungo prostituzioarekin aberasten direnei buruz, baizik eta prostituzioaren aurka daudenak dituzte jo-puntuan. Gauza zinez harrigarria, sindikatuak normalean ez baitute beren lanaz ondo hitz egiten, beren lan-baldintzez kexatu ohi dira. Ustezko sindikatu hauek, berriz, beti esaten dute "Itzela da nire lana, ez dut ezer nahi gizon gehiagok nirekin txortan egitea baino". Harrigarri samarra da sindikatu baten aldetik, eta, beraz, zalantzak dauzkat.

Zer diozu, prostituzioa dela eta, ez- kerreko zenbait sektoreren artean aukera askeaz egiten den apologiaz?

Oso harrigarria iruditzen zait eta nire iritziz ez du lekurik ezkerrean. Suedian prostituzioaren aldekoak eskuindarrak dira, argi eta garbi, pentsatzen baitute denok saldu behar garela eta aberatsek gu denok erosteko eskubidea dutela. Edonola ere, marxista bazara, edo sozialista bazara, reifikazioaren aurka egon behar duzu, ezkerria bizitzaren esparru ez-komertziala hedatzen saiatzen baita, ura

eta airea salmentan ez egoteko borrokatzen da, edo osasuna nahiz hezkuntza ez merkantilizatzearen alde. Nola borrokatu gaitetzke aldi berean gizakiak salmentan egotearen alde? Kontraesan erabatekoa da hori.

Zer parekotasun aurkitzen duzu pros- tituzioaren eta sabel-alokairuaren arte?

Oso antzekoak dira bi industriak, biek ere emakumeen gorputza saltzen eta gizakion gaitasun guztiz funtsezkoak merkantilizatzen baitituzte: sexua eta ugalketa. Txanpon beraren bi aldeak dira: bata sexua nahi du ugalketarik gabe eta besteak ugalketa, sexurik gabe. Emakumeak pertsona gisa ikusten ez dituzten gizonen pentsamolde patriarkalean oinarritzen dira. Haien zat bi emakume-kategoria daude: putak eta santak. Lehenbizikoak sexurako baino ez dira existitzen haien zat, baina prostituzio-harreman batetik sortutako umerik ez lukete onartuko, eta gauza bera aurkitzen dugu sabel-alokairuaren industrian: ez da sexuan oinarritzen, ernalketan baizik, baina ingurune guztiz kliniko batean, oso garrantzitsua baita sabela alokatzen zaien emakumeak putatzat ez hartzea.

Sabel-alokairu oro esplotazioa dela diozu. Zergatik?

Sabela emakume batena delako. Sabelak ez dira auto baten parekoak, alokatu eta bederatzi hilabetez eduki dezakezun gauza bat. Ezin da sabel bat alokatu, alokatzen dena emakumea da eta hori esplotazioa da. Haurren Eskubideen Deklarazioa urratzen du, gainera, haur guztiek beren jatorria ezagutzeko eskubidea. Horrenbestez, emakumeen salerosketa ez ezik, haurren salerosketa ere bada.

Emakumeen gorputzaren merkanti- lizazioarekin jarraituz, zer iritzi duzu pornoaren industriad eta horrek duen eraginaz emakumeen sexualitateari buruz gizonak duten imajinarioan?

Suediako Poliziak azaltzen duenez, prostituzioa bezeroen eskakizunak askoz exajeratuagoak dira orain dela urte batzuetakoak baino eta hori pornoaren industriari zor zaio. Bestalde, mutilak askotan porno-bideoak ikusten aritzen dira mugikorrean eta beren adineko neska 'normal' batek han ikusten dituzten gauzak egitea oso zaila gertatzen zaie-nez, gauza guztiz mingarri eta umiliagarriak izaten baitira maiz, prostituziora jotzen dute desira horiek asetzeko. ●



EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Zatoz
gurrera!

Ikastera,
jolastera, haztera...

Aurrematrikula / Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

ONLINE AURREMATRIKULA / www.hezkuntza.net

Euskadi, auzolana



SEVILLAKO
CASAS VIEJAS
ZENTRO SOZIALAREN
ERRESISTENTZIAN
POLIZIAK
TORTURATU
ZITUEN EKINTZAILEEI
ARRAZOIA
EMAN DIE
ESTRASBURGOK



EGUN MUGITUAK. Casas Viejaseko desalojoak iraun bitartean tentsio handiko egunak bizi izan zituzten Sevillan. Poliziak torturatu egin zituela salatatu zuten barnean kateatutako bi ekintzaileek, kalera atera ziren unean.

Casas Viejas izeneko gune autogestionatuaren desalojoa hasi zuen poliziak 2007ko azaroaren 29an, Sevillan (Andaluzia). Uste baino gehiago kostatu zitzairen: sei pertsona eraikineren kateatuta zeuden eta horietako bi lau metroko sakonera zuen tunel baten amaieran. 36 orduz eten zuten desalojoa, hirian protesta handiak eraginez. Azkenean, Poliziak lurpean zeuden bi kideak torturatu egin zituen aska zitezen. Hala salatu zuten berehala, Espainiako Estatuak salatu egin zituen, eta 12 urteren ostean, Estrasburgok arrazoia eman die. ARGIAk erresistentzia historia honetako protagonistetako batekin hitz egin du.

TESTUA | LUKAS BARANDIARAN
ARGAZKIAK | EL SALTO ARTXIBOA

Kaleratzetik hamaika urte igaro direnean itxi da Sevillako Casas Viejaseko erresistentziaren azken kapitulua. 2018ko azaroaren 20an Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Agustín Toranzori arrazoia eman dio. Lurpeko erresistentzia horretan parte hartu zuen. Espainiako Erreinuak 8.225 euro ordaindu beharko dizkio bere adierazpen askatasuna urratzeagatik.

Desalojoaren biharamunean, prentsaurreko batean, Toranzok adierazi zuen Casas Viejasen kaleratzean Poliziak tortura erabili zuela haren eta Iban Díaz kidearen kontra. Espainiako Gobernuak salatu egin zuen Poliziaren kontrako irain eta kalumniak egotzita, eta Sevillako auzitegi batek zigortu egin zuen. Honek argi zuen ordea gertatu zena eta bataila judiziala eman du, azkenik, Estrasburgok arrazoia eman dion arte. Epai leke adierazpen askatasunaren gaia hartu badute ere ardatz, epaiak torturen existentzia frogatzen du, zeharka bada ere. Torturarik egon izan ez balitz, Toranzo kalumniengatik zigortuko zuketzen. Toranzok dio, oro har, Sevillako auzitegiak ere aitortu egin zuela “guk salatutako guztia egin zigutela”. Baina Toranzo zigortzea erabaki zuen epaitegiak. “Nola aitortu dezakete egin ziguten guztia egia dela, eta hala ere kalumniengatik zigortu?”, galdetzen du Agustín Toranzok berak. Telefonoaren bestaldetik, ekintzaileak berak argi du: Espainiako Estatuak legediaren arabera, umiliazioa edo aitortu bat egon behar da tarteko tratatu txar bat tortura dela esateko. Beraz, ekintza

mota bera tortura izan daiteke edo ez, Poliziak duen helburuaren arabera.

Horixe da Espainiako Estatuaren jarduteko modua, eta hain zuzen jardute horren inguruko dudak eduki zituzten ekintzaileek zentro sozialaren erresistentzia prestatzen. Kaleratze eguna baino hiru urte lehenago hasi ziren lanean. “Helburua Iruñeko Euskal Jai gaztetxearen kaleratzean gertatutako erreplikatzea zen”, dio. Desalojoa hainbat egunez luzarazi nahi zuten, “operazioa ekonomikoki eta errepresiboki garestiegi egin arte”. Itoitzen eta Ingalaterran 90eko hamarkadan, autopisten, aireportuen eta azpiegitura handien eraikuntzen kontra erabilitako erresistentziak hartu zituzten eredu, Toranzoren arabera, eta haiena sortu zuten.

ERRESISTENTZIA LATZA

Polizia iritsi zen unean sei pertsona zeuden kateatuta barnean. Horietako bi, bertikalean lau metroko sakonera eta perpendikularrean beste lau metroko luzera zuen tunel batean zeuden. Amaieran zegoen gelatxoari ate blindatu bat jarri zioten. Gelatxoan argia, ura, janaria, oxigenoa, aireztapen konduktuak, kamera ezkutuak eta bi pertsona kateatzeko hodiak egokitu zituzten. Sarean erraz topa daitekeen *Londres no es Sevilla* dokumentalean bikain kontatu zuten egun horietan geratu zena.

Diazek eta Toranzok 36 ordu iraun zituzten lurpean kateatuta. Lehenak aurretik uste zuen Poliziak bortizkeria erabiliko zuela haiek ateratzeko; bigarrenak berriaz, ongi prestatutako teknikari eta

profesionalak erabiliko zituztela. Bien zoritxarrerako, lehenak asmatu zuen.

Polizia burua haiengana jaitsi zeneargi esan zien “Londresko eta Sevillako lurrak oso desberdinak” direla, eta Ingalaterrakoak erreskate tekniko bat baimentzen zuen bezala, Sevillako lurra ezegonkorra dela eta ezin zela halako erreskaterik egin. Hortik “Londres ez da Sevilla” izenburua. Toranzok ongi gogoratzen du: “Benetan esan nahi zuena zen hemengo Poliziak ez zuela erreskaterako tresna teknikorik erabiliko gu aterarazteko, baizik eta tortura”.

Hormigoiarekin paretari ongi itsatsitako hodi banatan zeuden kateetara lotu zuten eskumutur bana, eskaladan erabiltzen diren mosketoiekin. Iritsi eta berehala, Poliziak Toranzo eta Díaz sokekin lotu eta haiei tiraka hasi ziren. Ezkutatuta zituzten kameraren grabazioetan bi ekintzaileen une horretako oihu latzak entzun daitezke. Toranzok dio hori izan zela une gogorrenetariko bat. “Ibani ia-ia eskumuturra hautsi zioten, ezin zuen mugitu”. Ordu luzez eskumuturra kaltetuta, Diazek ezin izango zuen bere eskua hoditik askatu nahi izan balu ere.

Polizia operazioa luzatzen ari zela ikusita, kalean hondeamakina gelditu eta protestetan geroz eta jende gehiago biltzen ari zenez, Poliziak mehatxuka hasi zirela oroitzen du ekintzaile andaluziarrak. Gasa erabiliko zutela eta haien kontrako diligentziak puztuko zituztela esan zieten, besteren artean. Ura, janaria eta oxigeno bonbonak kendu zizkieten. Hala ere, biek



zirkirik egin gabe han jarraitzen zuten, lau metro lurpean. Polizien burua aska zitezela erregutzeroa heldu zen: "Ez zait buruan sartzen nola egin ahal izan duzuen hau. Ziur ez dela inolako modurik zuen eskutxo hontik atera eta tunel honetatik irteteko?", galdetu zien. Haiek ezetz, baldintza bakarra zela desalojoa geratzeko eta hondeamakina bueltan eramatea.

Toranzo eta Diazek behin eta berriz errepikatzen zieten ez zela posible hala askatzea, kateatuta zeudela eta irtenbide bakarra suhiltzaileen erreskate taldeak askatzea zela. Ondorengo ordu luzeetan negoziazio luzeak izan zituzten Poliziarekin, suhiltzaileekin eta bitartekariekin. Beatriz Moreno, guneko kidea, eta Diego Cañamero SATeko sindikalista eta politikari andaluziarra ibili ziren horretan. Dokumentalean ongi ikusten da bi kideen egoerak kanpoan sortzen zuen egonezina, baita jaso zuten babes zabala ere. Baina Polizia ez zegoenez prest desalojoa geratzeko, negoziaketek ez zuten emaitza onik eduki. Kanpoan kaleratzearen kontrako protestak gora ari ziren, hiriko etorbide nagusi ugari moztu zituzten manifestariak, eta Espainiako Estatuko telebistak kasua ezagutarazten ari ziren. Azkenean, Poliziak erresistentzia errotik moztea erabaki zuen.

OKUPAZIOAREN AURKAKO TORTURA

Bi agente tunelera sartu ziren Sevillako urak kudeatzen dituen Emasesa enpresako jantziekin moztortuta eta suhiltzaileen onespenerarekin. Kamera ezkutuak

zeudela konturatu zirenean, itzali egin zituzten. Esku bat paretara kateatuta izaki, beste eskuak sokekin lotu zizkieten eskumuturretan berrir, odol zirkulazioa moztuz. Buruz behera etzanda zeudenez, eskumutur hori bakoitzaren orkatilei lotu zieten prezintoarekin, gorputza jarrerara deserosoan mantentzeko. Ekintzaileek gerora kontatu dutenez, hala eduki zituzten 45 bat minutuz. Egoera horrek min zorrotza eta iskemia eragin ditzake: odol falta dela eta, gorputz atal baten gangrenatzea. Halako bi saioren ostean, -eta paretari lotuta zuten eskuko mugikortasuna galduz gero mosketoia askatzeko gai izango ez ote ziren beldurtuta-, bi ekintzaileek azkenean beren burua hoditik askatu zuten, erresistentziari amaiera emanaz. Desalojoa ostegun goiz batez hasi zen, eta txalo zaparrada eta malko artean, larunbat iluntzean atera ziren Toranzo eta Diaz eraikinetik.

Aurrez aipatu bezala, torturatu egin zituzten salatu zuten, eta ondoren etorriko ziren beren aurkako salaketa eta hedabide eskuindarren irain eta informazio faltsuak, "ETArekin harremanak zizutela" publikatzeraino. Azkenean, Estraburgok arrazoia eman die, eta argi geratu da Londresko eta Sevillako lurak agian desberdinak direla; baina batez ere, bi hirietako polizien jokamoldeek zerikusirik ez dutela. Estraburgok baieztatu du, ez dela deliturik esatean, Toranzo eta Diaz torturatu egin zituzten kateatuta zeudela. Espainiako epaitegi eta gobernuaren laguntzarekin egin ere. ●



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Guztion eskola publikoa gaurkoari eta biharkoari erantzuteko

www.elatzeta.eus

ARABA KALEA, 44 - 20305 IRUN
012102aa@hezkuntza.net - 943 93 77 59



Tolosako Babarruna

BERTAKOAK
GUREAK
GOZOAK
KALITATEZKOAK

*Hoberenak soilik
aukeratzen ditugulako*

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.eus

GARRAZKIAK NEGUA ARGITZEKO ETA BEROTZEKO



**GARRAZKIEN AZALAK LEHORTU, ETA SUA
ERRAZAGO PIZTEKO BALIAGARRI DIRA, AZALEKO
OLIOAN DAGOEN LIMONENOARI ESKER.**



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Negua da eta garrazkien edo zitrikoen sasoi gorena. Mandarina (*Citrus reticulata*), limoia (*Citrus x limon*), lima (*Citrus x aurantifolia*), laranja (*Citrus x sinensis*), arabisagarra (*Citrus x paradisi*), kumkuata (*Citrus japonica*) eta abar luze bat urrutira gabe topatuko dugu. Denak *Citrus* generokoak dira. Landare genero hori Asia hegoaldeko lurralde tropikaletatik hedatu da antzeko giroa duten mundu guztiko herrialdeetara.

Itxuraz garrazki guztiak hiru espezie nagusitatik datoz. Berez izugarritzko erraztasuna dute elkarrekin nahasi eta hibridoak sortzeko, baita klonazio naturalak bezala bat-bateko mutazioak agertzeko ere. Horrexegatik, zitrikoen genealogia oso da nahasia eta korapilatsua. Ez da harrizkekoa gutxiena uste duzunean forma edo kolore edo usain edo tamaina desberdineko fruitu berriren bat aurkitzea. Era berean gure elikadurarako garrantzi-

tsua bilakatu da garrazki jendea. Historian zehar nekazaritza garatu eta indartzen joan den eran, garrazkiak lantzeko joera bertakotu da. Fruitu aukera zabala izateak, bai dasta edo lurrin eta egitura aldetik, etxekotzea sustatu du; horri fruituaren azal lodiak kontserbatzeko eta garraiatzeko ematen dion erraztasuna erantsita, horra bere arrakastaren oinarriak. Asia hegoalde osoa eta Mediterraneoaren inguruko lurraldeak dira garrazki ekoizle nagusiak. Garrazkiek duten azidotasunagatik edo garratzagatik eta C bitaminagatik dira ezagunak. Euskaldunok itsasora sagardoa eramaten genuenean, beste kultura askotakoek garrazkiak zeramatzaeren eskorbutoari aurre egiteko. Bidaia luzeak egin behar zituzten marinel ingelesei limoia ematen zieten, gaitza harrapa ez zezaten. Hortik esaten zitzaaien mesprexuz "limey". Geroztik, Ameriketako ingeles orori horrela esaten zaio.

Negua izan ohi da geurean garrazki sasoi onena. Garai hotz eta ilunenean. Argi eta berotasun beharrak asetzeko sua pizten den sasoi. Eta sua pizteko garrazkien azala bezalakorik ez dago. Garrazkiren bat bere hatzekin zuritu duenak badaki azal horrek uzten duen lika antzeko arrastoaren berri. Lika hori limonenoa da. Azalaren olioan dago, eta berak ematen dio usain berezi hori. Inoiz saiatu al zara azala bihurritu eta suaren parean jartzen? Su festa polita egiten du. Nik Burundan ikasi nuen Iturmendiko Maria Otxoa de Errarte Gabirondo zenaren eskutik. Hark beti sutondoan garrazkien azalak lehortzen izaten zituen. Hurrengo egunean sua pizterakoan lehortutako azalaren limonenoari esker alde ederreko abiaduran hartuko du sua egurrak. Garrazkiak negua argitzeko eta berotzeko. ●

ORTUTIK AHORA

BARATZEKO UZTA “GASTROESKOLA” ERE BADA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN



Zazpi urte inguru daramatzate Busturialdeko (Bizkaia) Ortutik Ahora proiektuko kideek kontzientziak eta dastamenak astintzen. “Elikadura ikuspegi agroekologikotik lantzen dugu”, azaldu du Sergio Gonzalez Sanchez proiektuko kideak. Beren jarduna hiru ataletan banatzen dute: ekoizpena, eraldaketa eta formazioa.

BERTAKOA, SASOIKOA ETA AGROEKOLOGIKOA

Barazkien ekoizpenetik abiatzen da proiektua. “Nekazariak gara, eta atal oso garrantzitsua da hau guretzat, nekazarien egoera ez baita onena eta lan honen garrantzia aitortzea beharrezkotzat dugu”, dio Gonzalezek. Busturian egiten dute baratzea elkarteko hiru kideek. Barazkiak eta fruituak ekoizten dituzte bertan, guztia eredu ekologikoan, ENEEK Euskal Herriko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren ziguilarekin.

Ekoizten dituzten produktu horien transformazioan dihardute proiektuko kideek bigarren atalean: Ortutik Ahora Katering Agroekologikoan. Bazkariak, luntzak nahiz bestelako otorduak prestatzen aritzen dira beraien eta eskualdeko beste zenbait ekoizleren produktuekin. “Ziguilarekin edo gabe, baina lan egiten dugun ekoizleekin harreman zuzena du-

gunez, badakigu ekologikoan dihardutela. Kateringean darabiltzagun produktuen %80 bertakoak, sasoikoak edota ekologikoak dira”.

FORMAZIOA ETA SAREA JOSTEAREN GARRANTZIA

Proiektuaren hirugarren hanka da formazioa. Haur, gazte nahiz helduentzako tailer eta ikastaroak antolatzen dituzte Ortutik Ahora elkartekoek. Esaterako, Busturiako eskolan “Gastroeskola” deituriko proiektua dute abian. “Urte osoko eskolaz kanpoko jardura da: gazteekin hazien inguruan ikasi eta ortua lantzen dugu, eta ondoren ateratako barazkiekin sukaldetan aritzen gara”, dio Gonzalezek. Bere ustez, otorduetan haragiari edo arrainari barazkiei baino garrantzi handiagoa ematen diogu, eta horri buelta ematea dute asmo: “Errezeta asko dago barazkiekin munduan zehar, eta horiek erabiltzen saiatzen gara gure otorduetan”. Urteotako lanaren ondoren indartzen joan da Ortutik Ahora, eta pixkanaka eskualdean nahiz Bizkaian eragile sozial ere bihurtu direla dio kideak. “Elikadura hobetzeko eta egoera orokorra eraldatzeko hainbat mugimenduren parte gara, hala nola, Gure Platera Gure Aukera eskola-jantokitako elikaduraren inguruko ekimenean”, azaldu du. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

OTSAILAK 2 HONDARRIBIA

Fruta-arbolen inausketa eta zainketa ikastaroa.
9:30etan, Endanea Garden-en.

OTSAILAK 2 HENDAIA

Negua Txingudin pasatzen duten hegaztiak natura irteera.
14:00etan CPI-en.

Egun berean, 19:00etan gaueko natura irteera:
Euskal erlaitzeko gaueko misterioak.
Erlaitzeko Etxetik abiatuta, Asporotstipin.

IZENA EMATEKO:
cpilittoralbasque@hendaye.com
05 59 74 16 18

OTSAILAK 2 GASTEIZ

Pasta freskoa sukaldaritza ikastaroa.
10:00etan Mamia-n (Diaz de Olano margolaria kalea, 11-13).


Otsailaren 6an *Vietnamgo sukaldaritza* ikastaroa egingo da leku berean, 19:00etan hasita.

Otsailaren 7an *Kroketeatzen* ikastaroa egingo da leku berean, 18:00etan hasita.

IZENA EMATEKO:
mamiagasteiz.com

OTSAILAK 5 SORALUZE

Gipuzkoako baso politika berri bat hitzaldia. 19:00etan antzokian.



KOLDO IZAGIRRE

1977ko maiatzaren 22a

Arturo Delgadok ez zekien euskaraz, argazkiak egiten zekien eta haxe atera zuen Erreterian, errealitate horren bila joanda. Igarri zion portada bat izan zitekeela *Zeruko Argia*-rako, eta maite zuten euskaldun haiei erakutsi zien lehenik, beste inor gabe. Gainera, astekari baten portadak luze irauten du kioskoan salgarri, egunero aldatzen diren kazeten aldean.

Ilea urdindua du eta urtetsua izan behar du gizonak. Erretiratua egon liteke, edo azken urteak ditu lanean. Jaka soinean, trajeatua dagoela ematen du. Kutxa bateko enplegatua? Ezkerrean dagoen paperolako bulegaria? Lagunekin vermoutha hartzera etorri zaigu taberna bat bera ere zabalik ez dagoen igande honetan. Jakaren barneko sakelan kartera darama, karteran seme-alaba bien argazkiak. Emazteak aginduta jalgi da etxetik, alaba bederenik etxera ekar dezala. Badaki alferrik dela, baina kalera egin du hala ere, bere beldurra zanpatuz. Entzun, nere, amak bidali nau zure bila, ondo al zaude? Eta alabak barrikadatik alde egin dezala esan dio, arriskutsua dela, zoaz poliki etxera beste horiek hasi baino lehen.

Bagenekien zer ari zen gertatzen Erreterian eta beste herri askotan, portadak ez zuen testu beharrik, Arturo Delgado-ren argazkiak klarki islatzen du argazkian ageri ez dena, patxadakoaren jitea daukan gizona Xenpelarrek lan egiten zuen liho fabrikaren espaloian barrena etxera bidean doala asaldatuko duena, atzera behatuta ikusiko duena. ●

1987-AN LANGILEEK ANTZA INPRIMATEGIA SORTU ZUTEN

Paperaren gotorlekua

Antzako lantaldea 1997an.



MIREN OSA GALDONA

Batzuek paperaren iraungitze-data inoiz baino gertuago ikusten duten bitartean, beste hainbestek tinko eusten diote oraindik orri sortei, pantaila beltzen iraultzak neurri apalagoan harrapatuko balituzte bezala. Bada, ordea, eztabaida jardunera eraman, eta bi muturrak egunerokotasunean uztartzen dituenik.

1987. urtean sortu zen Antza inprimategia, 80ko hamarkadako ARGIAko lehen lantaldearen altzoan. Hastapenetan fotomekanika eta fotokonposizio enpresa gisa eratu zen arren, urtebete geroago jada zerbitzu integrala eskaintzen hasi ziren grafikagintzaren arloan. Tamayo inprentako makinaria erosi izanak zerikusi zuzena izan zuen enpresaren profesionaltasunean.

Imajinatu daitekeen moduan, baina, lan egiteko modua zinez aldatu da azken hiru hamarkadetan. ARGIA bera inprimatzeko prozesua adibide nabarmena da: lau egun behar izaten zituzten aldizkaria eskuartearen izateko. Gaur egun astelehen goizean inprimatu eta astearterako prest egoten

da ARGIA. Autoedizioa ere aipatzeko urratsa da, lehen aurrerapauso teknologikoa izan baitzen. Argazkiak eta testuak eskuz muntatzetik, eskaner bidez ordenagailura pasa, eta bertan edukiak editatzera igaro ziren. Bide beretik jarraitzen dute egun, oinarri zaharrei eutsiz eta baliabide berriak txertatuz.

90eko hamarkadan Donostiatik Lasartera lekualdatu ziren, eta leku berean jarraitzen dute lanean. Argia-tarrek 80ko hamarkadan egin bezala, enpresaren jabetza eta kudeaketa langile-bazkideen eskuetan geratu zen 1992. urtean, lantokia kooperatiba bilakatu. Pello Zubiria izan zen lehen gerentea, eta urte batzuk lehenago ARGIAN egin moduan, elkartasuna eta konfiantza balore nagusi gisa ezarri zituzten etorkizunari aurre egiteko. Gogo eta elkarlan hari esker eratu zen *Euskaldunon Egunkaria*, eta Antzari zor zaio 1990ean Durangoko Azokan argitaratu zen lehen ale hura. Baita bere atzetik etorri ziren beste hainbeste ere. ●



HORIZONTALTASUNA

Zuzendaririk gabeko komunikabidea



HIRU DAMATXO

MENDEURRENEKO ZENBAKIA. Lantaldea 2019ko lehen astekari berezia inprentatik atera dela ospatzen. Staffean zuzendaririk ageri ez den lehen zenbakia da.



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA
@itsasozubiria

Zer litzateke ARGIA zuzendaririk gabe? Zer litzateke komunikabide bat kargu gorenik gabe? Mendeurrenarekin batera ezagutuko dugu emaitza, lantaldeak hala erabakita zuzendaririk jarri gabe funtzionatuko baitu etxe honek.

Miren Jone Azurza, Mikel Atxaga, Eliaxete Garmendia, Garbine Ubeda, Pello Zubiria, Xabier Letona eta Estitxu Eizagirre. Azken zuzendariak ez du kargurako oinordekorik izango. Taldeak beteko ditu karguak eskatzen dituen lanak eta ardurak.

ARGIA bere erabakiguneak berrantolatzen ari da urtez urte, beti horizontaltasuna eta parekidetasuna ortzi-muga. Eta bide horretan emandako pausoek ekarri dute hurrengo hau egin ahal izatea, zuzendari figurarik gabe funtzionatzea. Lehen urratsa soldatak eta ardurak birbanatzea izan zen: soldatetan denek oinarri bera dute egun eta ardurak ere parekatuz doaz. Horretarako, lehenago zuzendaritzak landu ohi zituen ARGIAren proiektu estrategikoak lantaldeetan banatu zituzten; gogoratzen? Denek parte har zezaten eta sail guztietako langileak ordezkatzuta egon zitezten bermatzeko, lan asko hartzeko tentazioa zutenei itxaroteko eskatu eta hartzea gehixeago kostatzen zaienei saltoa ematen

lagundu zitzairen; oroitzen? Lantaldeko kideen egoera eta baldintza pertsonala, edozein izanik ere, proiektuko arduraren bat hartzeko muga izan ez dadin, kide guztientzat eramangarriak diren karga eta lan-orduak dituzten ardurak sortu dira, lanak gehiago banatuz, ezagun duzu?

Era berean, ordura arte zuzendaritzak hartzen zituen erabaki asko bazkideen batzarrera bideratu dira pixkanaka, gai sokenak prozesu parte-hartzaileetan landuz. Iaz, bazkideen batzarrak zuzendaritzaren antolaketa berritu zuen: zuzendaritza hautatzeko irizpideak, zuzendaritzaren funtzioak, eta zuzendaritza kide izateko urte kopurua zehaztu zituzten. Eta lanketa horren barruan planteatu zen egitura gero eta horizontalago batean zuzendari figurak zer zentzu duen.

ARGIAk mendeurrena hasi du zuzendaritza taldea berrituta –bost kideetik bi aldatu dira– eta zuzendari figurarik gabe. Horrelako aldaketak egingo direla entzun eta gure buruetako erreakzioek, galderek, zalantzek erakusten digute argien nola gauden programatuta; baina horrelako aldaketek eramaten gaituzte hausnarketetara.

Bizi dago ARGIA, eta globalean pentsatu eta lokalean eragiten jarraitzeko gogoz dago ehun urte beteta ere. ●

AZOKA

AZOKA.ARGIA.EUS



ZUHAITZAK EUSKAL HERRIAN

Adrien Gachiteguy-k idatzitakoa.
Argitaratzailea: Hemen Elkartea.

PREZIOA: 20 euro.



BERTSO EGUNERAKO BI SARRERA


Urtarrilaren 26an Barañainen egingo dute aurtengo Bertso Eguna. 19:00etako bertso saiorako bi sarrera ditugu Argia Azokan musutruk, bizkorren dabilenarentzat.



NOLA DA "MUSUTRUK"?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu Argia Jendearentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da. Denon esku dago Argia Komunitatea elikatzea, bakoitzak ahal duena besteen esku musutruk jarrita.

XVI. mendeko emakumeen musika taldea



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

@irazustabarrena

Ferrarako dukerria (egungo Italia), 1580. Alfonsso II.a Ferrarako dukeak lau emakumez osatutako musika taldea osatu zuen. Ferrarako gortea prestigiodun musika gunea zen ordurako, hainbat gortesau musikazalek beste noble batzuentzat jotzeko ohitura errotuta baitzegoen bertan, *musica riservata* izenekoaren testuinguruan. Taldeak Concerto Delle Donne (emakumeen kontzertua) zuen izena, Livia d'Arco, Anna Guarini, Laura Peverara eta Tarquinia Molzak osatu zuten eta 1597. urtea bitartean jardun zuten. Garaiko musika kritikariek laukotearen lana goraipatu zuten eta, hala, haien ospea ez zen gortera mugatu.

Emakumeei publikoan musika kantatu eta jotzeagatik ordaintzea, emakumezko musikari profesionalak izatea, alegia, ez zen ohikoa garai hartan eta, eskandalua leuntzeko, dukeak hainbat neurri hartu behar izan zituen: taldekideak ez zituen soilik beren dohainengatik aukeratu; lauak behe nobleziako kideak ziren. Nesken doteak gizendu zituen lehenik, eta maila berriarekin bat zetozen beste lau noblerekin ezkontarazi zituen. Eta gortean jotzen hasi baino lehen, beste zeregin bat eman zien: ofizialki, dukesaren konpainiako dama izendatu zituen.

Ornamentazio oparoa eta bertuosismoa ziren taldearen ezaugarri nagusiak, eta garaiko konpositoreentzat pieza be-



'HIRU EMAKUME GAZTE MUSIKA EGITEN BUFOI BATEKIN', XVI. MENDEKO LAN ANONIMOA

rriak egiteko inspirazio iturri izan zen. Zenbaiten ustez, Concerto Delle Donne XVI. mende amaierako italiar musika profanoaren gertaera garrantzitsua izan zen. Madrigal izeneko konposizioen bilakaeran funtsezkoa izan zen eta hala, musika barrokoaren sorrera bultzatu zuen elementuetako bat izan omen zen.

Baina musika estiloan baino gehiago, emakume musikariengan izan zuen eragina laukoteak. Taldearen arrakastaren eraginez, Italiako beste gorte

batzuetan ere emakume taldeak sortu zituzten, esaterako, Orsinitarrek Erroman, Gonzagatarrek Mantuan eta Medicitarrek Florentzian. Maria de Medici Frantziako erregina zen orduan eta, horri esker, emakume taldeak Parisko gortean ere sartu ziren. Horrenbestez, XVII. mende hasierako Italian, nahiz eta jatorrizko Concerto Delle Donne hura desaginda egon, emakume musikariei karrera profesionalak izateko aukera zabaldu zitzairen. ●

Emakume bikingoak ere beste mundura joan daitezke

1904an Gabriel Adolf Gustafson arkeologo norvegiarrak hileta-arreo oparoa zuen itsasontzi bikingoa aurkitu zuen Oslotik gertu. Oserbergeko ontzi horrek baieztatu zuen bikingoek beste mundura joateko ontzian ahalik eta ondasun gehien pilatzen zutela. Berriki, ontzian ehortzitako giza arrastoak 70-80 eta 50

urteko bi emakumerenak direla ondorioztatu dute. Jakina da borrokan hildako gerlari bikingoak Valhallara joaten zirela, gainerakoek Bilskimirren pasatzen zutela hil osteko bizitza eta gaizki jokatuz gero, Helheimen jasoko zutela zigorra. Orain badakigu emakume bikingoek ere aukera horiek zituztela. ●



OSLOKO UNIBERTSITATEA

BEÑAT GOITIA
MONTAUK TALDEKO KIDEA

**“BURUAN GENUENA
DISKORA ERAMATEA
LORTU DUGU”**

TESTUA | **GORKA PEÑAGARIKANO** @gorkap34
ARGAZKIAK | **DOS POR DOS**

Negu-usaina nabari da Gasteizen. Aire hotza, aire freskoa eta, batik bat, aire berria. Montaukek bigarren diskoa argitaratu du, *Geruzak*. Beñat Goitiak geruza askoz betetako lan hotz eta trinkoa dela dio. Igartzen da, eta badakigu: iritsi da negua.



Urriaren amaieran Geruzak (Erraia, 2018) argitaratu zenuten, zazpi kantaz osatutakoa. Zein dira diskoaren geruza horiek?

Lehenengoa *Bilaketan* (autoekoizpena, 2016) deitu zen, nahi genuenaren bila baikenbiltzan. *Geruzak* aldiz, ibilbidearen deskribapen bat bezala da. Bilatzen hasi, lehen diskoarekin oinarria finkatu eta enbor horri geruzak jarri. Kontzeptu aldetik hori zen asmoa. Produkzio aldetik kapa asko ditu, eta horiekin guztiekin esentzia topatu dugu.

Berrikuntzetako bat diskoetxean dago, Erraia zigilua darama. Zer da Erraia?

Gasteizen lagun artean sortutako diskoetxea da. Izaki Gardenak, Joseba B. Lenoir eta Montaukek, hirurok sortu dugu. Autoekoizpenean oinarritzen gara, eta talde moduko bat osatu dugu. Lan egiteko moduak batzen gaitu, metodologia bera dugu. Durangora elkarrekin joan ginen, eta kontzertu asko batera eman ditugu, baita emango ere. Elkarlanerako sortutako taldea da izatez, indar biltze bat, autoekoizpenak dituen zailtasunei aurre egitea errazago egitea helburu duena.

***Bilaketan* lehendik egindako kantak musikatzetik etorri zen. *Geruzak* bi urteren ostean etorri da. Jarraikortasuna eman nahi izanagatik, presiopean aritu zarete?**

Abestiak bi urtetan joan dira sortzen, inolako presiorik gabe. Hori du autoekoizpenak: ez duzu ezer sinatu eta ez duzu konpromisorik, zeurekin baino ez. Helburu moduko bat jarri genuen: diskoa

bi urtetan kaleratzea. Lehen urtean, *Bilaketan* diskoa aurkeztu eta kontzertuen joan-etorriak tarteko, ez genuen apenas denborarik izan. Bigarren urtean sortu da gehienbat.

“

“HOZTASUNA TRANSMITITZEN
DUGULA ESANGO NUKE,
BAINA ALDI BEREAN ETXEAREN
BEROTASUNA ERE BAI”

Izaki Gardenak taldeko Libe Garcia de Cortazar eta Jon Basagurenen laguntza izan duzue zenbait kantatan. Zer moduz joan da?

Modu naturalean sortu da, ez zen gure hasierako asmoa. Erraiarengatik hurbiltasuna eta laguntasuna izan dugu haiekin. Emakume ahots bat sartu nahi genuen abesti batzuek bazutelako ukitu horren beharra, eta Libe izan zen. Niretzat biak dira erreferente, eta ilusioa egin zidan.

Aurreko diskotik hona, zertan hobetu du Montaukek?

Lehen diskoa egitean hasiberriak ginen, lehen aldia baitzen. Bigarren honetan bagenekien jada zer zen estudio batean sartzeari, zer lan eskatzen duen aurretik. Produkzio lana garrantzitsua da; bost egun dituzu estudioan eta zenbat eta gehiago

egin aurretik, orduan eta emankorragoak dira. Kantak oso landuta eraman genituen, hori izan da Montaukek izan duen hobekuntza nagusietako bat. Musikalki ere gauza berriak sartu ditugu. Sintetizadoreak, elektronika... eta buruan genuen hori musikara eramatea lortu dugu.

Montauk New Yorkeko lurmuturra da. Zergatik izen hori?

Ramon Saizarbitoriaren *Martutene* eleberria irakurtzen nabilela otu zitzaidan. Nobelaren barruan beste nobela bati buruz hitz egiten da, Max Frisch idazle suitzarraren *Montauk*. Besterik gabe, izena dotorea dela iruditu zitzaidan, fonetikoki batik bat. Montauki buruz ikertu nuen, eta harritu egin ninduen. AEBetako armadak base bat jarri zuen han, lurmuturrean, ikerketa psikologikora bideratutakoa. Egiten zituzten gauzak interesgarriak iruditu zitzaizkidan, misterio-tsua, eta ondo zetorkion izena taldeari.

***Itzali da Berlin* izan da lehen aurre-
rapen kanta, orain arteko entzute-
tsuena. Zer du Berlinek, Gasteizek ez
duenik?**

Euskaldun gazteok, batik bat gasteiztarrok, badugu nolabaiteko lotura Berlinekin. Europako hiri alternatiboa da, dekadentzia ukitua duena, eta badu zer bait euskal gazteria erakartzen duena. Lagun batekin egon ginen han. Aski ezaguna den Berlingo gaua ezagutu genuen, eta bazuen misterio zantzu hori. Eta kanta sortzera eraman ninduen, xarma berezia duelako.

***Munduaren alde honetan* abestian, honela diozue Libek eta zuk: “Bizirau-
teko ahaleginean, munduaren alde
honetan”. Zein dira bi mundu horiek?**

Itsasoa luraren espaziora pasatzen dela proposatzen da, eta lehen lurra zena orain itsaso bihurtuta dagoela. Gaur egun behartuta gaude edozein egoeratarako ego-kitzera. Mundua alderantziz jartzen denean, bizimodu horretara egokitzea besterik ez dugu, hori egitera kondenatuta gaude. Mundu zoro bat irudikatzen da abesti horretan. Anfibioak aipatzen dira, uretan eta lurtean bizirauteko gai diren pertsonen gisan. Zera adierazi nahi da, behartuta gaudela edozein egoerari aurre egitera eta egokitzea.

Kantek badute abstrakzio puntu bat.

Lausotasun handia dute. Zuzenean ez dio entzule guztiei kolpe bera ematen. Bakoitzak nahi duena uler dezake. Oi-

narrian, azkenean, hori dago; entzualdi gehiagorekin jendea kapa horiek deskubritzen joan daitekeela, bakoitzak nahi bezala. Kanten izaera mugagabeak kanta luzatzeko ahalmena eman digu, kontaketa narratibo bat egitekoa eta interpretatzekoa. Hori egin dugu sare sozialen bitartez; kanta bakoitzari egun bat eskaini eta horri buruz idatzi, ilustrazio baten laguntzaz.



“GIZAKIOK KONDENATUTA
GAUDE EDOZEIN EGOERARI
AURRE EGITERA ETA BIZIMODU
HORRETARA EGOKITZERA”

Beldurrez eta kezka jositako pertsonaia baten larruan jartzen da entzulea.

Sarritan musikariok maitasunaz mintzo gara, nahiz batzuk modu orokorrangoan aritu edo esplizituago edo inplizituago agertu. Baina denetan dago kezka, beldurra eta maitasuna. Lehen diskoarekin alderatuta, bide beretik doaz kantak, baina badago ukitu bikoitza bat, nahiz eta oraindik ere badagoen konnotazio negatibo bat. Hoztasuna transmititzen dugula esango nuke, baina aldi berean etxearen beroetasuna ere bai. Aldebikotasun horretan dago gure esentzia. Hoztasun horri buelta emateko aukera bat ematen du diskoak, dantzarako edo laguntasunerako bultzatzen duena.

Zuzenekoetarako prestatzen ari zarete. Zertan, zehazki?

Diskoari eman beharreko beste interpretazio bat da zuzenekoa: nola islatu geruza horiek denak bi eskurekin. Aitor Garcia de Vicuña olagarro baten antzera dabil, gitarrarekin eta sintetizadoreekin, bata eta bestea jotzen. Orain zuzenekoetarako aukeraketa bat egin behar dugu, zer eta noiz jo, erakutsi nahi duguna erakutsi ahal izateko. Kontzertuek diskoa baino zuzenago behar lukete izan, eta gordinago eta zikinago arituko garelako esango nuke. ●



PLATERU

DURANGOKO ZILARGINEN HERRI-ANTZEZLARI IZPIRITUA BERPIZTEN

Durangoko Plateruena Kafe Antzokiak bere itxurara egindako ikuskizunaren estreinaldiarekin ospatu zuen XIV. urteurrena. Urriaren 28an, jendez betetako antzokiko oholtza gainean, lehen aldiz taularatu zuten *Plateru*. Zuzeneko musika, hitzak eta dantza uztartzen dituen ikuskizunari buruz gehiago jakiteko Erika Lagoma eta Aritz Lasargurenekin bildu gara, Matxalen Ertzillarekin batera ikuskizunaren zuzendariak biak.

TESTUA | AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA @amaialekunberri
ARGAZKIA | PLATERU IKUSKIZUNA

Plateruena egin dugu hitzordua, nabarmena baita Lasarguren eta Lagomarentzat esanguraz beteriko lekua bilakatu dela. *Plateru* bertan entseatu eta estreinatzeaz harago, antzokiak badu lotura sakonago bat sortu duten ikuskizunarekin: Plateru izengoitiz ezagun egin ziren durangar anai bik eman diote izena biei. Erreferentziak erreferentzia, gaur egun oso gutxi ezagutzen ei ditu herrian. “Durangon badaukagu Plateruena antzokia edo Plateruen plaza, nahiz eta durangar gehienek ez dakiten ezer berauei buruz. Askok ez dakite ezta nortzuk ziren ere”, dio Lasargurenek. Bat dator Lagoma ere: “Ni irakaslea naiz, eta ziur nago ikasleei galdetu ezker, gehien-goak ez lituzkela ezagutuko”.

Zilargintza ogibide izateagatik, Plateru deitu zitzaion Antonio de la Fuente Bolanjero (1757-1834) eta Juan Cruz de la Fuente Bolanjerori (1760-1831). Alabaina, ez ziren zilarra lantzeagatik egin ezagun. Kopla-egile eta soinuari trebea omen zen Juan Cruz, dantzari iaioa berriz Antonio, eta trebetasun horiek bilakatu zituzten ezagun herrian eta inguruetan. Txistu, bertso, musika eta dantzara emanak izanik, inguruko herrietako jaietara

gonbidatzen zituzten. “Oso plazakoak eta kultura herrikoari lotuak” zirelako, beraien herri-antzezleri izpiritua errebindikatzeko ere aprobetxatu dute. “Zerbait herrikoia egin nahi izan dugu, herritik sortua eta herriarentzat. Horrek lotzen gaitu beraiekin”, azaldu du Lagomak.

Lasarguren eta Ixone Aroma izan ziren ikuskizuna sortzearen ideari bueltak hasi zirenak, duela urte bete pasa. Koreografiari lotutako ideiak atera eta Lagomarekin kontaktuan jarri ziren, gidoilari lanak egitea proposatzeko. Lagomak dantzak istorioarekin harilkatzeari ekin zion eta apurka-apurka proiektua martxa hartzen joan zen. Konturatzerako lan-talde handia zuten osatua. “Gehitzen joan eta azkenean Durangoko hogeitertsonak amaitu dugu ikuskizuna prestatzen. Ardura handiak hartu ditu gazte pila batek, eta bakoitza bere esparruan handitzeko modu bat izan da”, dio pozik Lagomak.

HAUSNARKETARA GONBITA

Dantza eta musika tradizionalak garaikideekin nahastuz, ikuskizunak zilarginen garaia gaur egungoarekin uztartzen du. Alabaina, Plateruak ezagutzera emateaz

harago izan dute beste helbururik sortzaileek: “Hausnarketa batzuk planteatu ditugu, gure asmoa ez baitzen soilik haien bizitza kontatzea. Beraien bizitza eta gure gaur egungo kezkak lotu nahi genituen”, azaldu du Lagomak. Hala bada, oholtza gainetik zenbait hausnarketa mahaigaineratzea bilatu dute.

Gogoeta egitera gonbidatzen duen gaietako bat du ikuskizunak indargune: **emakumeen ikusgarritasuna**. Sortzaileek zekarten kezka izatetik urruti, gaiak bilatu ditu eurak, ikuskizuna landu bitartean zilarginak bi anaia ordez hiru neba-arreba zirela jakin baitzuten. “Guk istorioa Juan Cruz eta Antoniorekin hasi genuen, eta dokumentazio lanetan hasita ginela Marisa Barrenak zilarginen arrebari erreferentzia egiten zion testu bat aurkitu zuen”, dio Lagomak. “1818an Frantzia argitaratutako testu bat da, eta bertan irakur daiteke nola zilarginek beraien umore bereko arreba zeukaten, herri herri beraiekin dantzaldiak egiten zituena”, azaldu du Lasargurenek. Horixe da Maria Francisca Escolastica (1749) aipatzen duen testu bakarra, gainontzean gizonak idatzitako historiak ahanzturara kondenatu baitu.



PLATERU IKUSKIZUNEKO LAN-TALDEKO ZENBAIT KIDE, PLATERUENA KAFE ANTZOKIAREN ATEETAN

Oroimen ariketa eginez, emakumezko Platerua omentzen du ikuskizunak. Lagomak ahotsa jartzen dio Escolasticari: “Bera izango banintz bezala abesten dut, nahiz eta azken finean emakume askoren ahotik zaintzari buruz kantatzen dudana. Kezkatzen nauen gai bat da, mundu honek ez baitu zaintzarik gabe funtzionatzeko. Kontua da askotan zaintzaileak ez direla zainduak izaten, eta nago Escolastica ere ez zela oso zaindua izan”.

Euskararen gaia ere erdigunean jarri nahi izan dute, baina “betiko hausnarke-ta” egitea saihestuz. Plateruek gaztele-ra jaso zuten etxean, eta beraien kabuz ikasi euskaraz. Horregatik “zein majoak ziren” esatea erraza litzatekeen arren, fokua gaur egunera ekarri nahi izan dutela diote, Euskal Herrira datozen etorkin gazteek bertoko hizkuntza ikasteko dituzten zailtasunetan arreta jarri asmoz. “Iaz, lanean, 14-15 urteko bi etorkinen kasua oso gertutik ezagutu nuen. 16 urtetik beherakoak izanik ezin zuten euskaltegiara jo, eta astean soilik bi orduko errefortzua zeukaten euskara ikasteko. Ikasbidea egin nahi izatekotan hizkuntza menperatu beharra dagoenez, euskara ez jakiteagatik beste bide batetik bide-

ratu behar ditugu? Denok oso jatorrak gara, baina nork erakutsiko die euskaraz?”, aieratu du galdera Lagomak.

Zilarginak bi anaia ordez hiru-neba arreba zirela jakin dute sortzaileek

Bestalde, **ertzetako norbanakoak** erdigunera ekarri nahi izan dituzte. Plateruen bizitzako pasarte batez baliatu dira horretarako: 1828an Espainiako errege Fernando VII. eta Maria Josefa Amalia de Sajonia erregina Durangon izan ziren, eta ongi etorri ospakizuna egin zieten herrian. Ordurako 70 urte inguru zituzten Plateruek dantza egin zieten, eta kronikek diotenez, porrua dantzatzekoan erregina barrez leher-tu zen. “Madrileko gorteetatik Durangorainoko bidaian barrerik egin ez zuen Amalia algaraka hasi omen zen Juan Cruz lodikotea dantzan ikustearekin ba-

tera, hori jasotzen dute kronikek”, azaldu du Lasargurenak. Barre algarak alde batera dantzan jarraitu zuen Platerua eredu, “ertzetako gorputz eta pertsonaiak” oholtzara igo dituzte.

ANTZOKIAREKIN ELKARREKINTZA

Esku artean zeukaten lanaren porturatzea ziurtatu nahian, lehenengo saioa lotu eta data horri begira lan egiteko beharra ikusi zuten. “Orduan esan genuen: zein egun egokiago Plateruenaren urteurrena baino?”, azaldu du Lagomak. Esan eta egin, antzokiko kideekin harremanetan jarri eta lehen emanaldiaren data zehaztu zuten.

Estreinaldirako oholtza eskaintzeaz harago, Plateruenak ikuskizuna baldintza oso onetan entseatzeko espazioa ere eskaini die. Prozesuaz pozik agertu dira, alde biak elikatu dituela uste baitute: “Antzokiak plaza eman digun era berean, gu antzokiko bazkideak gara eta herriko jendeak sortutako zerbait antzokira eramanez”, azaldu du Lagomak. Esperientziak antzokiaren eta herriaren arteko hartu-eman hori indartu izana espero dute: “Agian datorren urtean beste jende bat antzerako zeozer egitera animatuko da”. ●



LIBURUA

Poesia da



BATZUEN AMETSAK BERTZEEN ZELAI ZULATUAK DIRA

PAMIELA, 2018

IDAZLEA:

HASIER LARRETXE

ARRAIOZ, NAFARROA GARAIA, 1982

IGOR ESTANKONA

Hasier Larretxearen poesia ez dakit zaidan lirikoa, edo filosofikoa. Ez dakit idazten duen hotzean, edo sentimenduen berotasunak gidatzen duen bere ele apaindua. Intuitiboki irakurtzen hasi, eta orduantxe aurkitu diot nik gustua *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* honi (Pamiela, 2018) zeinak ez baituen egiazen beharrik, memoriaren beharrik, helduleku beharrik: “Adarretan kiribildurik/ sustraitu genuen bidegurutzetik haraindi/ joaterik ez zutenen absentiaren lotsaizuna”.


Irrazionala da. Kalkulatua da. Kontraesanean bizi da Larretxea (Arraioz, 1982). Zorrotza da hitzarekiko, surrealismoaren mugekiko. Poesia sententzioen biltegi bat da, aliterazioz eta antitesiz eta zentzu bikoitzez aberastutako leku ia fisiko bat: han isurtzen dira baz-

tandarraren mamuak, heriotza eta ahaztura. “Galdutako aukera bakoitzak/ zulo sakonago bat irekitzen du/ memoriaren labarrean,/ ostertzaren ikuspegian”.

Baztan eta Madril eta ezinbestean mundu gero eta txikiago hau nahasi zaio Larretxeari arimako zelai mugagabee-kin. Izan ere, poesia erraza eta efektista bilatzen badituzu hau ez da zuretzako liburua. Batzuetan agian zehaztasuna falta zaio, egitura batzuk dauzka duda-mudazkoak eta hitz zenbait hobe hauta zitzakeen, baina ukazina da testuen magnetismoa, barne-korronte baten antzera liburua gurutzatzen duen tristezia gozo hori: “Zeri besarkatu heldulekurik ez badago// Iraungi da ahanztura azken hatsaren tunelean./ Iluntasunean baino ezin dugu elkar ikusi./ Itzalpetako dantza errarian, ifrentzuen maskara(d)an./

Kandelen argitasun-ahurrean// Perfilez baino ez dakusagu/ errealtateak jaurtitako txanpon herdoildua”.

Larretxearen erreferentzia eta heldulekurik gabeko hausnarketa ateporalak, errepikapenaren puruz, musika antzeko bat bihurtzen dira, letania bat ez dena zertan literalki ulertu. Horrek ahalbidetzen dio hats luzeko poemei arazorik gabe eustea, ideia batetik bestera modu lokabeen salto egitea. Horrek bihurtzen du *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* interesgarri eta gustagarri. Ez dut esan bihotz-hunkigarri, ezta zirraragarri. Baina liburu honek badauka atrebentzia, eta konpromiso bat agertzen du poesiarekin. Poesia bada hitzei esanaraztea orain arte esan ez dutena –ordena aldatuz, esanahia sublimatuz–, hau poesia da. ●



DISKOA

Arroz-soroetan ere aske



VIETCONG 68 TALDEKO KIDEAK



A B VIETCONG 68

TOUGH AIN'T ENOUGH RDS /
TORTURE CHAMBER RDS, 2018

IKER BARANDIARAN @ikerBarandiara

Arrasaten jaio eta hazitakoa naiz, ondorioz Oi! mugimenduaren irla iraunkorreko biziraulea izan naiz luzaroan. Bai, nik ere baditut, beste estilo askotako taldeenaz gain, Oi! diskoak etxean eta batzuk kuttunak ditut, baina azkar asetu nintzen koru horiekin, punkaren amorrua akabatzen duten punteoekin eta, kasu askotan, zabaltzen dituzten mezuekin. Beste zerbait behar nuen...

Horregatik gustura hartzen ditut hemen bizi (izan) duten konfort-gunetik irten eta bestelako proposamenak, gero eta askeagoak badira hobe, jorratzeko erabakia hartzen dutenak. Horren adibide da Vietcong 68 post-Bardulia taldea. Laukote honetako kideek ibilbide emankorra dute atzetik eta, besteak beste, Orreaga 778, Kaleko

Urdangak eta Neallta Fola proiektuetan ibili dira, eta gaur egun, horietako batzuek, besteak beste, Screamers and Sinners zein Ttun Ttun Brigaden dihardute.

Pepino abeslariak askotan erakutsi du kortseetatik aldentzeko gogo eta hala egin zuen, esaterako, Achtung proiektu amorratuarekin. Oraingoan, erabat irekia den Karlote gitarra jotzailea egin du bidelagun. Bien artean eman diote forma, Moto eta Ekaitzekin batera, dagoeneko bi disko kaleratu dituen Vietcong 68ri. Nahiz eta taldekideak Hernani, Bergara, Aretxabaleta eta Azkoitiakoak izan, ez dira askotan elkartzeko, eta ondorioz zuzeneko gutxi ematen dute.

Behin Oi!-aren patroiz estuetatik aterata sudur puntan jartzen zaie-

na idatzi eta abestea erabaki zuten, ahal izanez gero probokatzeko bokazioaz, jakina. Zortzi abestiz osatutako biniloan Ilegales handien lehen laneko *Yo soy quien espía los juegos de los niños* bertsionatzen dute eta horrekin jada irabazi banaute ere, bada mami gehiago: punk-rock amorratuarekin ezkontzen den rock-and-roll baziloia (*Generosa*); Guidaren tanke-rako rock kaletarra uztartzen (*No a la democracia*); Oi! leloei eusten dion arroz-soroetako punk-rocka; Fiachras-en arrastoa uzten duen *Generosa II* balada rockeroa; *Tangocracia* punk-rock-and-roll azkarra; Discipulos eta Oi! musika batzen dituen *En el delta del Mekong*; eta Ilegales-en legatua post-punk ilunarekin batzen duen *Yo soy el niño* autobiografia ederra. ●

Kapeladun koplak



VI. NAZIOARTEKO INPROBISATZAILEEN TOPAKETA

NOIZ: Azaroaren 30ean.

NON: Bilboko Hika Ateneoan.



TESTUA | **DABI PIEDRA**
ARGAZKIA | @OIHANABARTRA

Modan dago atzerriko inprobisatzaileak eta euskal bertsolariak elkarrekin oholtzan kantuan jartzea, azkenaldian arrakastaz antolatutako zenbait topaketa lekuko. Bere txikian, Bilboko Hika Ateneoak badaramatza urte batzuk kultur trukeak egiten. Azaroaren 30ean, VI. Munduko Inprobisatzaileen Topaketa egin zuten. Kolonbiako inprobisatzaileen berri gutxi izan dugu Euskal Herrian, eta, hortaz, ikusminez hurreratu ginen Atxuriko lokalera.

Oholtzan, Edwin Jairo Giraldo, ezizenez *Radioloco*, Kolonbiako *paisa* kulturaren ondarearen zaindari, Antioquiá eskualdeko semea, Medellín hirikoa. Han ere inprobisatzaileak ez dira falta jai eta ospakizunetan, nonbait. Kapela buruan eta musika lagun, erritmo biziko erakustaldia egin zigun *Radiolocok*: *Cuarteta* delakoa da oinarria, hemengo koplaren parekoa, baina ia arnasarik hartu gabe kateatu zituen mordo bat, *seguidilla* balitz legez.

Gero, beste neurri batzuk erakutsi zizkion aho zabalik entzuten ari zen publikoari. Zortzikoaren pareko *trova dobleteada* eta hamaika oineko *trova cinco y seis* delakoa. Errima artean, Sabino Arana, Pío Baroja eta abar aipatu zituen *Radiolocok*, jendearekin berehala konektatu zuen. Dantzan ere atrebitu ziren entzule batzuk.


Euskal-kolonbiar trukea gauzatzeko, Oihana Bartra igo zen agertokira. Bertsolariaren gaitasunarekin harrituta, *a capella* abestera ausartu zen *Radioloco*; Bartrak, aldiz, gaztelaniaz bota zituen koplak batzuk. Hika Ateneoko giro hurbilak hauspotu zituen biak, baina nor bere ohiko estiloan aritu zenean bertso askoz hobeak entzun genituela ezin da ukatu. Oihana Pascual aurkezle eta interpretearen eskutik euskaratik gaztelaniarako zubia baliatu zuten.

Radioloco eta Bartra, biak dira txikiak garaieran. “Frasko txikietan datoz, beti perfume onenak” bota zuen Bartrak hasteko. *Radiolocoren* kapelak ere eman zuen zeresana. Bilbon jarri dituzten bizikleta elektriko berrien kontura, publikoak gogoz txalotu zuen bertsolari bilbotarraren ateraldi hau: “Ta kapela horrekin, ai Erwin maitea/ ez al dugu hobeto, zaldian joatea?”. Kultura txikien balioa aldarrikatu zuenean, *Radiolocok* ere txalo zaparrada galanta irabazi zuen.

Kalitateari dagokionez, ariketarik onena ia amaieran heldu zen. *Radioloco* Erdialdeko Amerikako migrante baten azalean jarri zuen gai-jartzaileak, Oihana Trump-en aurrean. Umorea eta seriotasuna uztartuta, inprobisatzaileen arteko truke polita izan zen. Saioaren amaieran, noski, *Radiolocok* kapela opari eman zion Bartrari. ●



Hitz gezidunak

1 	... JO, NAZKATU BIRLAK BOTATZEAN DATZAN JOKOA	LAU HORTZE- KO GOLDE SOBERA, GEHIEGI	KOROR UHARTEKO HERRITAR JANTZI MOTA	TAMAINA HANDIKO SUGEA ZIKINTASUNA	2 
	1 GURE				
IBILGAILU ASTUN 2	GORAGALEA TONA			LIKIDO BIHURTU ÖNDÖREN	HOBEZIN 3
		ERA SARKO- RREZ EZER HITZAREN TXIKIGARRI			
MEGA HARRO	GARAIA, TARTEA ALEAK HAUSTU		LIKIDO-MASA TXIKIAK LUR AZPIKO PASABIDE		
		HITZORDU BATAIARRI		HAREAZKO MUINOA ZARTAKO, UKALDI	
OHE AZPI ZORRAREN ORDAINA			EUSKAL KANTARIA GIZONEZKO IZENA		MUSIKA ESTILOA BYTE
		ORBAN TXIKI AKTORE		UBEL EGUR	
3 					4 
	4 XAKEKO FITXA			NOREN ATZIZKIA	

Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9		7					1	3
				2				9
	5				3		4	
		1	8		6			
6		8				5		4
			7		9	1		
	4		6				2	
5				7				
2	1					3		5

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Isurkari mingots.
2. Odol hodia.
3. Ardien gorotz.
4. Buruz motel.
5. Ugaria.



EBAZPENAK

5. NAROA	5	7	3	8	6	4	9	1	2
4. INOZO	1	9	4	2	7	7	3	6	8
3. PIKOR	2	8	6	5	1	5	3	4	7
2. ZAINA	9	8	1	6	4	7	5	2	3
1. OZPIN	4	6	5	3	1	2	8	7	6
SX5:	3	2	3	2	9	5	8	1	6
	1	5	2	4	7	7	3	4	7
	8	3	4	1	2	7	6	5	9
	6	7	5	8	4	2	1	3	9

				N	E	R		I	O	E	P	
				V	A	U	P	A	X	T		
				E	Z	E	Z	T	N	A		
N	A	B	R	O		N	I	R	O		O	I
I	O		O	K	R	U		E	P	E	H	O
V	N	U	D	V	T	I	Z		R	E		F
V	A	K		N	V	T	V	E	N		M	
I	R	K		O	A	R	S	E	A	T		A
B		U		V	O	A	K	A	R	O	G	K
				V	R	V	V	G				
				O	K	O	J	A	L	O	B	
				B	K		N	G				

Empar Moliner

KOKTELEN SORMENEAN



LETREKIN JOSTETAN

“Hamazazpi urte nituenean aldegin nuen etxetik. Antzerki talde bat nuen eta *hippiea* izan nahi nuen. Eskolan eta batxilergoan literatura lehiaketa denak irabazi nituen. Han eta hemen ibili nintzen, nire lehendabiziko liburua idatzi eta argialetxeetara bidaltzea erabaki nuen arte. Baiezkoarekin erantzun zidaten eta argitaratu nuen: orduz geroztik aukera desberdinak suertatu zaizkit, irratian eta telebista desberdinetan kolaboratzeko. Baina liburuak dira nire pasioa: lan egin beharrik gabe, bizitzeko adina diru izango banu, idazten jarraituko nuke, gelditu gabe...”

“Norberaren ahultasunen inguruko txantxak egitea posible den herri batean bizi nahi dut”

2015ean *Tot això ho faig perquè tinc molta por* liburuarekin Mercè Rodoreda saria irabazi zuen idazle eta kazetaria da Empar Moliner (Santa Eulàlia de Ronçana, Herrialde Katalanak, 1966). Feminista eta independentista.

TESTUA | **SAIOA BALEZTENA**

ARGAZKIAK | **JORDI BORRÀS**

Dry Martini kokteleria aukeratu duzu elkarrizketa egiteko.

Zergatik?

Jende asko ez delako sekula sartu kokteleria batean. Sekulako esperientzia galtzen du! Kokteleriak maitatzen ditut mantsotasuna eta dotoretasunagatik, eta bezeroak nahi duena dastatzeko ahalik eta hobekien egokitzen diren zerbitzariak dituztelako. Tira, betidanik aisialdi tokizat izan dut nik lokal hau.

Badago uste duenik Bartzelonako koktelerietan gizonetakoak nagusi direla.

Eta hala da. AEBetan egoera bestelakoa da, baina hemen gutxitan topatu ditut emakumezkoak koktelerietan, eta baldin badaude, bikotekidearekin etortzen dira. Are gehiago, bakkari dagoen emakume bati, oraindik ere, zerbitzua eskatzen diote gizonetara, prostituzioan lan egiten duela uste dutelako. Egia da azken urteetan aldatu dela zertxobait egoera, baina, oraindik ere, gizonetakoak lotutako aisia da hau.

Zenbateraino da hau egitura patriarkalaren ondorioa?

Ez dakit. Jatetxeetan ere duela gutxi arte ohikoa zen ardoen karta gizonetakoari ematea. Esango nuke kasu horretan gehiago aldatu dela joera hori, baina koktelerietan eraldaketa gutxi ikusi dut zentzu horretan.

Zuri nondik dator kizua edariarekiko grina?

Nork daki kasualitatez edo ez, gaztetxoa nintzenean alkoholak euren bizitzetan edo obran garrantzia zuen idazleen lanak irakurtzen nituen, tartean Bukowski edo Dorothy Parker. Gainera, adingabea nintzenean *La Cua de Palla* bilduma irakurtzen nuen, eta edateko adina izan aurretik liburu horietan irakurrita nuen Bartzelonako Gimlet ostatuko helbidea, memorian giltzatuta nuen. Mundu mitikoa iruditzen zitzaidan.

Feminista zara baina hainbat kritika egiten dizkiozu mugimenduari?

Arazo bat dut: norberaren ahultasun-



nen inguruko txantxak egitea posiblea den herri batean bizi nahi dut. Katalana naiz eta katalanen inguruan bromak egin nahi ditut, baina gaur ezin dut, espetxeratutako eta erbesteratutako politikariak ditugulako. Animaliak maite ditut eta animalisten bromak egin nahi ditut, baina ezin dut, duela aste gutxi Bartzelonako polizia batek Sota zakurra hil zuelako ka-lean. Feministen inguruko bromak egin nahi dut, baina VOXek Indarkeriaren Legea aldatu nahi badu, ezin dut.

Feminismoaren aldarrikapen bat da literaturan eta kulturen emakumeen lana goraipatzea, zuk zalantzak dituzu.

Literaturak emakumezko asko ditu. Are gehiago, emakumeok gehiago irakurtzen dugu gizonezkoek baino. Zein da kontua, emakumezko idazleak falta direla? Ez dut uste. Nire ustez gizonezkoak adina emakume idazle egoteagatik ez dugu berdintasunaren alde aurrera egingo: liburu bat irakurtzen dudanean berdin zait autorea gizona edo emakumea den. Besterik gabe, ongi idatzitako istorioak nahi ditut.

Aldiz, kritika literarioaren irizpideak desberdinak dira idazlea gizonezkoa edo emakumezkoa bada...

Bai, horretan arrazoi duzu. Hori aldatu beharra dago. Baina sentsazioa dut, aldiz, aldarrikapen honek babes txikiagoa duela kuoten eztabaidak baino. Nire ustez hemen behar da feminismoaren indarra.

Gatozen aktualitatera: preso politikoak, erbesteratuak, eta gauzatu ezin izan den bide orri bat. Nola bizi duzu?

Errailetatik minduta nago. Duela gutxi ondorioztatu dut gehiegizko enpatia dudala. Oilo larrua jartzen zait kaletik joan eta bi pertsona musukatzen ari direnean. Negar egiten dut musika entzun edo, zergatik ez, ardo on bat edaten dudanean. Seguruenik sentimentalki heldugabea naiz, bai. Baina ama naiz, eta ohera joan eta bertako espetxeratuak euren seme-alabengandik urruti daudela gogoratzen dudanean, ezin dut jasan.

Jaiotzetik zara independentista edo bilakatu egin zara?

Betidanik izan naiz independentista, bai-

na manifestazioetara joan ordez sofan gelditzen zen horietakoa. Feminismoarekin ere gertatzen zitzaidan. Hala ere, urrutiegi iritsi da dena eta ez, prezio hau ordaindu behar bada nik ez dut independentziarik nahi.

2016an lau haizetara zabaldutako TV3en Espainiako Konstituzioa errezatutako bideoa.

Espainiako Auzitegi Gorenak Pobrezia Energetikoaren dekretua baliogabetu zuen, eta telebistara iritsi nintzenean argi nuen horren harira zerbait egin behar nuela. Beraz, baliabiderik gabe gelditzen ziren familiak etxea berotzeko libururen bat erre beharko zuten, espainiar denek etxebizitza duinaren eskubidea dugula adierazten duen Espainiako Konstituzioa erabiltzea proposatu nuen. Besterik gabe.

VOXek salaketa bat jarri zuen zure kontra.

Bai, eta oraindik ere jarraitzen du, epai-leak behin eta berriz baliogabetu duen arren. Apartekoak dira. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Bilbo salgai jarri dute Wallapopen eta txinatar batek erosi du 30 euroan



LEHEN ALDAKETAK SUMATZEN HASI DIRA BOTXOAN.

"Akats baten erruz", Bilboko Udaleko funtzionario batek hiri osoa salgai jarri du Wallapopen eta Huan Zhao izeneko enpresari txinatar baten jabetza izango da hemendik aurrera. "Nik ez nuen hiri osoa saldu nahi", azaldu du funtzionarioak, damaturik. "Helburua kale pare bat eta plaza bat saltzea zen, horretan ari gara azkenaldian, baina eskua joan

zitzaidan eta hara". Bilboren jabe berriak oraindik ez du aurreratu zer asmo daukan, baina litekeena da hiri osoa parke tematiko bihurtzea, turistak erakartzen saiatzeko. Lasaitasun mezua zabaldu nahi izan die herritarrei, beraz, Bilboko Udalak: "Ez duzue diferentzia handirik nabarituko orain arte egin dugun kudeaketarekin alderatuta". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Egin zaitez artzain,
zure etorkizuna da



Amurriotik mundura



ITZAL HANDIKO JOKALARIA, ETXEOKA

Xabi Alonso: "Sistemaren biktima gara"

Beranduegik hitz bi trukatu ditu Xabi Alonso ustezko futbolariarekin, ustezko zerga iruzurragatik ustez deklaratu aurretik. Bere jokabidea ulertu eta errespetatzeko eskatu digu: "Urrezko Danborra eman zidatenean hasi zen guztia. Neukan subidoiarekin gau hartako gintonic eta kubatak ordaintzea ahaztu zitzaidan. Bai, egia, normalean gonbidatu egiten naute,

baita Kijera gaztetxean ere, baina guxtienez dirua zorrotik ateratzeko keinua egiten dut, nire jatortasun mugagabearen ikur. Aupa Tolosa! Eta, klaro, ba hortik milakatxo batzuk euro ez deklaratzera urrats txikia dago. Begira Cristiano Ronaldo laguna, Urrezko Baloia eman zioten eta gero... Biktima gara, gure txaletean lasai bizi nahi dugu, besterik ez". ●




Sartu ARGIAko **AZOKA**n eta ezaqutu eskura duzun guztia




Ikus-entzunezkoak



Mahai-jolasak




Laminak eta mapak



Gorputza



Eguzki lorearekin egindakoak



Bitxiak




Argitalpenak




Elikagaiak




Eskulangintza



Jantziak



Jostailuak



Besteak

azoka

<https://azoka.argia.eus/>

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com